

ARRASATE PRESS

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2005eko urtarrilaren 14a / 700. zenbakia



ONGI ETORRI!

Arrasateko Udaleko SEXOLOGIA ZERBITZUA

Kaixo lagun!

Ongi etorri Arrasateko Udaleko SEXOLOGIA ZERBITZUko web orrira.

Zerbitzu hau adin guztietako pertsonari zuzendurik dago, gura zerbitzua sexu edo sexualitatearen inguruko edozein kuriositate nahiz kezka asetzeko gunea bait da. Bertan, sexologian aditua den taldeak, sexualitatearen inguruko informazio eta aholkularitza eskainiko dizue.

Harremanetan jartzeko...

Bulogora etor zaitezke, bakarrik edo zure lagunekin edo telefonoz deitu dezakezu/e. Bestela, martxoan jarri dugun web orri honen bitartez "kontsultak" ataletik gurekin harremanetan jar zaitezke/te.

Gustora jasoko dugu zuk/zuek ezanak! Mila esker



Kontsultak

"Kontsultak" deritzogun atal honetan, sexualitatearen inguruan dituzun proposamen, galdera, iradokizun, kezka eta aholkuak jasoko ditugu. Zerbitzu honek, hainbeste gogoko duzun edo kezkatzen zaituen horren inguruko aholkularitza eskaintzeko balio dezake. Beraz lagun, zuek ere zer ezanik izango duzunez, eman pausua!

KONTSULTA FORMULARIOA:

Izena edo Ezizena:

E-posta(Erantzuteko):

Kontsulta:

► BARRIETAN ETHER 2.PISUA ► TEL.: 943 79 88 10 ► E-POSTA ► ARRASATEKO UDALA



Sexulinkak

Hurrengo lerroetan interesgarriak izan daitezkeen sexologiaren inguruko hainbat web orriren helbideak dituzu:

- Arrasateko Udala: www. arrasate-mondragon.org
- La quinta pesataña: www.laquintapestana.com
- I.N.C.S.E.X: www.sexologiaysociedad.com
- Gaztes area: www.gaztesarea.com/gozategi
- Amaltea: www.institutoamaltea.com
- Asociación estatal de profesionales de la sexología: www.aeps.es

► ARRASATEKO SEXOLOGIA ZERBITZUA ► BARRIETAN ETHER 2.PISUA ► TEL.: 943 79 88 10 ► E-POSTA ► ARRASATEKO UDALA

www.sexologiazerbitzua.com

Udal Sexologia Zerbitzuak webgune berria abiarazi du

ORAIN ETA HEMEN: UDAL AURREKONTUA/6 • KULTURA: III. CANTE FLAMENKO TXAPELKETA/12

GREMIOEN GIDA/20

AZALA: ALEXAZKARATE

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 14**
Amezua, Santa Marina 32 943 79 09 74
- ZAPATUA, 15**
Español, Araba etorb. 14 943 79 18 65
- DOMEKA, 16**
Ruiz, Maala 31 943 79 14 09
- ASTELEHENA, 17**
Zabala, Zarugalde 42. 943 77 16 30
- MARTITZENA, 18**
Azkoaga, Ferrerías 1 943 79 15 15
- EGUAZTENA, 19**
Azkoaga, Iturriotz 17. 943 79 79 99
- EGUENA, 20**
Corcuera, M. Aranbarri. 943 79 22 26
- EGUBAKOITZA, 21**
Irizar, Erguin 11 943 79 12 39

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERIETXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea 943 03 53 00
Igualdariorioa 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak 943 79 39 00
Emakumeak 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea 943 79 90 11

- LARRIALDIAK**
SOS Deiak 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DVA 943 78 71 57

- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelehenetik
egubakoitzera 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan egun osoa

- Arrasate**
Astelehenetik
egubakoitzera 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan 09:00etatik 14:00etara
• Txanda hartzeko:
medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
• Espezialitateak 943 03 53 11
• Ikuskatzailea 943 03 52 52
• Kanpoko kontsultak 943 03 53 11

- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak 943 45 87 44

- ERTZAINZA**
Arrasate 943 79 71 99

- SUHILTAILEAK**
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea 088

- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
943 79 78 44

- GARRAIOAK**
Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza 943 79 72 11
Abaroa erretiratuaren egoitza 943 79 81 57

- MONTEIRON LIBURUTEGIA**
Monterron 943 77 01 05

MEZAK

- | | |
|---|---|
| San Juan parrokia
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
09:00 (elebiduna)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (elebiduna) | San Andres eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
10:00 (gaztelaniaz)
11:00 (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz) |
| San Frantzisko eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
09:00 (euskaraz)
10:00 (elebiduna)
12:30 meza nagusia (elebiduna)
19:00 (elebiduna) | Santa Marinako eliza
Zapatua
19:00 (gaztelaniaz)
Domeka
11:00 (gaztelaniaz) |
| Uribarri parrokia
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
11:30 (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz) | San Isidro eliza
Zapatua
20:00 (euskaraz) |
| | Santa Teresa eliza
Domeka
12:30 (elebiduna) |

OHARRAK

SAHARAREN ALDE
Nubi elkarteak sahararren alde batutako elikagaia eramateko kamioiak behar ditu.
30350080940800054177 kontu korrante zenbakia zabaldu dute kamioi horiek erosi eta horrela elikagaiak garraiatzeko.

ODOL ATERATZEAK
Arrasateko anbulatorioak odol ateratzeak egiten dihardu azken egunotan. Hilaren 19an, 26an eta 27an aterako dute odola, 16:30etik 20:00etara. Ohikoa den moduan anbulatorioak eskaera egiten die herritarrei hara hurbildu eta odola eman dezaten.

KONTZERTUA GAZTETXEAN
Bihar, zapatua, kontzertua egingo dute gaztetxean. Hiru talde arituko dira: Sharon Stoner, Neubat eta Izaera. 22:30ean izango da.

ARIZMENDIKO BERBALDIK
Astelehenean, Lehen Hezkuntzako 5 urteko ikasleen gurasoendako, Umezaintzan, Uribarrin; eguaztenean, Haur Hezkuntzako ikasleen gurasoendako, Olarten; eta eguenean, Haur Hezkuntzako ikasleen gurasoendako, San Viator Txikin. Hirurak 18:00etan egingo dituzte.

AEDrenAGENDA

DEBAGUNEN EGUTEGIAK ETA KANTU LIBURUXKAK, SALGAI
Debaguneraren 2005eko egutegiak eta herri-kantuen liburuxkak salgai daude AEDn. Lehena 2,7 eurotan eta bigarrena 2,6 eurotan.

URBANOENORDUTEGIA

- Gorostizatik Eroskira (2 Linea)**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara (2 Linea)**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.
- Gorostizatik Eroskira (1 Linea)**
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, San Frantzisko, J.L. Iñarra, Makatzena, Obenerreka, Cristo Obrero, Galizia, Joan Bengoa eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara (1 Linea)**
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN


Langileek UCEM Arrasate SAL sortu zuten

Pezeta baten truke bi lantegien orubeak eta akzioak UCEM korporazioak langileei saldu ondoren, Zerrajera eta Transformadosen gestioa langileen esku geratu zen. Modu horretan, 174 langileek hartu zuten enpresaren ardura eta UCEM Arrasate SAL sortu zuten.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Jirau"



Manejau.
— Nundik jirau dok txaketa hori.

JON IRAEGI

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Gabonetako kiloak kentzeko aholkuak

Gabonetako atsedenaldiaren ostean, aste honetan ekin diogu berriz ere 107.7ko autobusaren ibilbideari. Amaia Diaz de Monasterioren dietista izan dugu gonbidatuatariko bat. Dieta gogorrik egin gabe eguneroko lau jatorduetan zer jaten dugun zainduz gero, Gabonetako gehiegikeriei aurre egiteko nahikoa dela azpimarratu digu. Diaz de Monasterioren emandako aholkuak asteko gainbegiratuan berreskuratuko ditugu.



Palestinako hauteskundeak

Arrasate Irratiko autobus mugarik ezagutzen ez duenez, Palestinara ere hurbildu da, joan den asteburuan egindako hauteskundearen gaineko ondorioak aztertzeko. Amaia Arrizabalagak ondo ezagutzen du Palestina, iaz han izan zen-eta laguntzaile lanetan. Palestinaren etorkizunari dagokionez, ezkor samarra da Arrizabalaga, Israelen eta AEBen eskuetan dago-eta, bere uste-tan, herri palestinaren etorkizuna.

HAUGIROA!

MINIMOA Astelehena, 10	-3 °C
MAXIMOA Egubakoitza, 7	15 °C
ASTEKO EURIA (l/m²)	0,8 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 5	10 °C	0 °C	0,3 l/m ²
Eguena, 6	12 °C	2 °C	0,5 l/m ²
Egubakoitza, 7	15 °C	4 °C	- l/m ²
Zapatua, 8	12 °C	-1 °C	- l/m ²
Domeka, 9	12 °C	-3 °C	- l/m ²
Astelehena, 10	11 °C	-3 °C	- l/m ²
Martitzena, 11	12 °C	-3 °C	- l/m ²

San Juan auzoan jasotako datuak



ASTEKO PROGRAMAZIOA

- ZAPATUA**
10:00 **Asteko gainbegiratu**: Amaia Diaz de Monasterioren, dietista; Amaia Arrizabalaga, Palestinako hauteskundearen gainean; Pedro Uranga, apaiza; Ion Odriozola, txirindulari ohia...
- DOMEKA**
10:00 **Asteko gainbegiratu**.
- ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA**
09:00-11:00 **IGO AUTOBUSERA!**
Albistegia.
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Elkarrizketak
Merkatu txikia
Zozketak, etab...
- 11:05 **Musika**
- 12:05 **Arrasate Irratiko albistegi laburra.**
- 12:20 **Zorion agurren tartea.** (Deitu zoriontzeko: 943 71 17 31)
- 12:30 **Izarren ordua:** abesti ezagunak
- 13:00 **Euskadi Irratiko albistegia.**
- 14:00 **IGO AUTOBUSERA!** (errep.)
- 17:00, 19:00, 21:00, 23:00 **Arrasate Irratiko albistegi laburra.**

KALEINKESTA/ Publizidadiek badauko eragiñik konprak egitteko orduen?



VALEN RAMIREZ
Langillie



ARIS ORELLANA
Langillie



KARMELO SAGASTA
Langillie



MIKEL IRUNDAIN
Langillie



ANGEL IÑIGEZ
Erretiraue



JUAN JOSE GURIDI
Erretiraue

Ez, ez naz publizidadien fjetan. Alabie fjetan da, baiñe neu gehixau fjetan naz erosi biher doten hori kalidadekue dan, zelako preziue daukon, eta gustau egitten jaten.

Baietz esango neuke, azkenien, ezaguketan doten markak erosten dotelako, eta normalien horreik publizidadie egitten daue. Normalien, markakuek kalidadekuek izeten die.

Bai, publizidadiek badauko eragiñe. Nike, Adidas eta holako markek, adibidez, publizidade asko egitten daue, eta holakuetan fjetan gare. Jentiek markako gauzak erosten dau.

Neuk hamen kantzontzilluek be ez dot erosten, oso karue da-eta. Kapitaletan erosten dot gauzak, eta markei edo publizidadiei begiretu biherrien poltsikuei begiraketan dutzet.

Gauza batzuetarako bai, eta beste batzuetarako ez. Zapatak, adibidez, onak erostie gustetan jat, eta automobile be markiei begira erosi neuen. Bestela, kalidadien eta preziuen fjetan naz.

Ze erosten doten... Erraminttak erosteko, adibidez, marka ezagunek gustetan jat, Bosch eta holakuek. Txapuzak erosi izen dot, eta luzera garestixau urtetan daue.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK LANEK APARKALEKUAK KENDU Hainbat irakurlek aditzera eman digute haserre daudela aspaldian erdialdean hainbat lan egiten dabiltzalako. Horrek eragiten du, euren esanetan, aparkaleku mordo kentzea. Herritar horiek uste dute lan horiek egiteko beharrezkoak diren baino aparkaleku gehiago kentzen dituztela, eta, hala, egoera hori konpontzeko eskatu dute.

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN /7

Abade berria Arrasaten

Ordenatu berri den Pedro Luis Uranga zumaia-rra Arrasaten hasi berri da abade.

KIROLA /8

Kiroldegiko abonuenak

AUKEAK aditzera eman ditu aurtengo kirol zerbitzuetako abonuen prezioak. Ez dago igoera handirik.

ZAHARRAK /14

Uribarriko elkarte zabalik

Airezatze sistema konpontzeko lanak bukatu dituzte, eta zabalik dago auzoko elkarte.

ASTEKODATUA

1.600

TXERTO JARRIKO DITUZTE MENINGITISAREN KONTRA

Osakidetzak kontratatutako langile batek meningitisaren kontrako 1.600 txertotik gora jarriko ditu herriko ikastetxeetan. 11 eta 20 urte bitarteko ikasleei jarriko dizkie txertoa.

BESTEKEESANA

“Jakina da euskara elkarteak xede baten atzetik dabiltzala: euskararen erabilera areagotzea. Ezagutze-

ak ez baitu erabilera bermatzen, eta erabilera da euskararen normalizazioan daukagun hutsik handienetarikoa. Gainera, parra-parra hitz egiten ez dugun artean ezin dugu euskaraz nahikoa gozatu, ezta erabiltzeko gai izateak ematen duen poza sentitu ere. Xedea lortzeko ekimenean diharduen bazkide kopuruari buruz, elkarte gehiago gara 2004ko urte bukaera honetan. 75 euskara elkarte osatzen dugu Federazioa. Bada zerbait. Euskal hiztunon beharrei erantzuteko jarduerak antolatzeke, elkarteak martxan ari dira. Baina oraindik ez gara iritsi euskaldunak bizi diren txoko guztietara”

JOXEMARI MUXIKA
‘TOPABERRI’/04-12-20

HERRITARRENBERBAK/ Oihan Zubizarreta



Perimetroa

Gabonetan gurera etorri ohi diren barrakei begira, laukizuzen baten perimetroaren baitan egin daitekeenaz gogoetan jarri naiz. Egungo dibertsioaren ereduak uzten dizkigun mugek daukaten isla horri begira jarri naiz une batez. Tira, badakit guztiok egin izan duguna dela, baina nolahi ere, ez da aisialdiaren eredu onena. *Bowling, tunning, popcorn* eta *cinemen* perimetroak ez diren bezalaxe.

Irudi geometriko ezberdinen perimetroetan egiten diren gauza absurdo, surrealista eta memeloen inguruan pentsatzen jarraitu dut. Horra hor telebista; hain eremu txikia hartzen duen karratuak zein atentzio handia bereganatzen duen gure burmuinetan! Zer esanik ez futbol-zelai baten perimetroak ematen duenaz...

Edo Eusko Legebiltzarra edo Espainiako Diputatuen Kongresua bezalako hemisfe-

rio, karratu edo zirku-ferentzietan gertatzen direnak kasu; formek, itxurak, politikeriak eta “politicamente correcto” izateak ekartzen dituenak, aizu! Ekuazio inposibleenak froga daitezke bertan: 3+3=39 bezalakoak. Horratx matematikaren perimetroa! Eta zenba-

kien hariari tira eta tira, gure mundu eta Herri honetako ekuazio garratzenen emaitzak datozkit gogora; Asia hegoaldean hildako 125.000tik gora pertsonak, jendarte eredu honek iazkoan erail zituen 9 emakumeak,

hamarnaka espetxetan bahituta eta sakabanatuta dauden 717 euskal herritarrak, sakabana- ketak eraildako 16 senide eta lagunak, atxilotutako *terroristen* hamarnaka tortura testigantzak, boteredunek lan istripuetan eraildako 51 langileak, 42 gazteren zama gainera bota dituzten 654 espetxe urteak... Horratx batzuen dibertsioaren perimetroak uzten digun matematika! Bejondeiela!

“Hain eremu txikia hartzen duen karratuak, telebistak, zein atentzio handia bereganatzen duen gure burmuinetan”

Arrasate

Otolara Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Xabier Urzelai
Jon Berezibar

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Natali Martinez
Imanol Elortza
Amalia Mundiñano

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gainzarain
Ane Berezibar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Marta Leturia

LEGE-GORDAILUA
55-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzak

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jauriaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

ASTEABIHITZETAN

'Etxetik ingurumena zainduz' kanpaina

Agenda 21 Arrasatek, Udalsarea 21ek eta Arrasateko Udalak lankidetzan egindako *Etxetik ingurumena zainduz* dokumentua kaleratu zuten Gabonetan. Bertan, besteak beste, etxea modu iraunkorrean antolatzeak aholkuak ematen dituzte. Uraren kontsumo egokirako aholkuak, birziklatzeko gomendioak, lorezaintza ekologikoa egiteko proposamenak... Izan ere, liburuan azaltzen dutenez, badaude keinu txiki asko egunero ginez gero izugarriko onurak ekar ditzaketenak. Hamar mila ale inguru egin dituzte eta horietako zazpi mila ale etxez etxe banatuko dituzte.

Aralar udal taldearen mozioa onartuta

Joan den urteko azken osoko bilkuran onartu zuten Aralarrek aurkeztutako mozioa. Bertan, Aralarrek salatzen zuen euskal presoen sakabanaketa eta adibide moduan jartzen zuten abenduaren 6an Ekain Gerra Solaguren preso barañaindarraren gurasoek izan zuten auto istripu larria. Sakabanaketaren ondorioz izan diren istripu guztien berri ere eman zuten, eta dispertsio egoera amaitu egin behar dela aldarrikatu. Horrez gain, bake prozesu baten eta giza eskubide guztien alde egin behar dela gaineratu zuten. Mozioa EAJren, EAren, EB-Berdeek eta Aralarren aldeko botoekin onartu zen. PPK eta PSOEek kontrako botoa eman zuten.

Droga-mendekotasunen plana onartuta

Arrasateko Udalak droga-mendekotasunen prebentziorako bosgarren plana onartu berri du. Prebentzioa helburu, plan horrek kontuan hartzen ditu gizarteko hainbat arlo, guztiek dute-eta harremana pertsonaren garapenaren desbideratzeetan. Hala, prebentzioa landuko dute sendiaren eremuan, hezkuntza arloa zainduko dute, aisialdia aztertuko... Eginbeharrekoetako bat ere izango da gizartea sentsibilizatzea.



Saiolango eraikina eraberritzeko lanak

Arrasateko Udalak abian jarri du Zerrajerako egoitza nagusian egingo diren lanak burutzeko lehenengo pausoa: lehiaketara atera ditu lanak. Proiektuak aurkezteko zortzi hilabete emango dituzte, eta 415.500 euroko aurrekontua egongo da lanok egiteko. Kulturarekin lotutako erabilerarako zuzenduko dute egoitza eraberritua.



USTEAKUSTE/Iker Barandiaran

Guztiak irabazle

Gaur, egubakoitza, halako zeresana eman duen Danbaca Deba-goieneko I. Musika Lehiaketa bukatu egingo da. Hiru talde lehiatuko dira eta zapatuko ordu txikietan jakingo dugu irabazlea zein den. Hirurak gogor datoz eta edozeinek dauka irabazteko aukera. Ikusi behar!

Harrigarria izan da lehiaketa honek izan duen

oihartzuna. Ibarreko eta baita kanpoko lagun askok ere izan dute honen berri eta jende askoren ahotan egon da, batzuetan ondo eta beste batzuetan txarto, ohikoa den moduan. Antolakuntzakook pozik gaude, baina jakin badakigu beste edizio baterako zuzendu beharreko akatsak ere egin ditugula.

Dena dela, azpimarratu gurako nuke lehiaketa hau

irabaziko duten bi taldeez gain (epaimahaiak eta publikoak aukeratutakoak), ibarreko musika talde guztiek edo gehienek zertxobait irabazi dutela. Jende askok ikusi du hemen musika talde asko daudela eta horietatik askok maila handia dutela. Are gehiago, lehiaketan sailkatu ez diren edo esku hartu ez duten beste talde asko ere badaude, eta hor ere badaude harribixiak. Ez eduki inolako zalantzarik!

ASTEKOIRUDIA



AITOR LIZARRALDE

BEHERAPENKIN HERRIETAKO SALTOKIEN SALMENTAK ZERTXOBAIT GORA

Heldu da urte berria, urtarrila eta horrekin batera beherapenen sasoa. Dendariak esan dutenez, igarzen da herritarrak beherapenetan saltokietara gehiago hurbiltzen dabiltzala, eta batzuk zein besteak gustura dabilta saltzen edo erosten. Bestalde, herriko denden harira, aspaldian eztabaida

handia dago saltokien egutegiaren gainean: asteburuetan zabaltzearen gainekoa. Saltoki txikiak ez daude konforme, berez merkatalgune handiekin lehiatzea zaila da, eta asteburuetan zabaltzeak kalte egingo die. Gero eta saltoki gehiago ixten dabilta herrietan eta ez da txantxetako. /ARRASATE PRESS

Aretz

Markole 5
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETA

Plater konbinatuak
Ogitartekoak
Hanburgesak
Pizak
Oillaskoak eta
paellak eramateko



S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikan erakusketa

Gipuzkoa etorbidea 6 -1.a
Tel./Faxa: 943 79 01 82



KONTRATAK
IRYROK S.L.
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14
ARRASATE



POLIZIAK 'GOIENKARIA' ITXI ZUEN, BAINA OPORRETARAKO BAKARRIK

A benduaren 28an, Inuzente egunean, beste albiste askoren artean poliziak *Goienkaria* itxi zuela argitaratu zuen Udaleko aldizkari ez ofizialak. Arrazoiatarako bat izan ei zen errege-erreginak Arrasaten egon zirenean *Goienkaria*-ren argazkilariak erreginari zapaldu egin ziola. Argazkilariak gezurtatu egin du hori: "Erregea printzearendako garbigailu bat lapurtzen harrapatu nuen, eta argazkiok publikatu egingo nituela mehatxatu". *Goienkaria* berriro zabaldu ahal izateko baimena lortu dugu, garbigailua oparitu eta monarken bisitaren 24 orriko berezia egitearen truke. Hurrengo zenbakirako.



ARRASATEKO KIROLARIEK EHNA-REN ALDEKO KEINUA EGIN ZUTEN JOAN DEN ZAPATUAN

Joan den zapatua izan zen EHNA tramitatzeko egunetako bat, eta ekimen horren alde egiteko Arrasateko hainbat kirolarik bat egin zuten *Bai Euskal Herriari* taldekoekin. Argazkiak atera zituzten Monterronen ondoan, eta bertan izan ziren, besteak beste, Mondra Futbol Taldeko, Antxintxika Debagoiena Triatloi Taldeko, Arrasate

Errugbi Taldeko, Mugarri Alkasa Saskibalo Taldeko, Arrasate Atletismo Taldeko, Ordiziako Errugbi Taldeko eta Arrasateko Eskubaloi Taldeko ordezkariak. Zapatukoa ez zen izan, baina, EHNA tramitatzeko egun bakarra. Otsailaren 5ean, martxoaren 5ean eta apirilaren 7an egongo da horretarako aukera, Monterronen.



EGURALDI TXARRA EGINDA ERE, NESKAK EZ DIRA KIKILTZEN

A benduaren 29an jokatu zuten Almenen Leintz Bailerako Nesken II. Futbol Zortziko Txapelketa, eta eguraldiak batera lagundu ez bazuen ere, 13 eta 17 urte bitarteko 60 neska ibili ziren futboleko dakitena erakusten. Guztira sei talde izan ziren txapelketan, eta datu pozgarria da bigarren txapelketa horrek joan den urtekoak baino parte-hartze handiagoa izan duela. Busti-busti eginda amaitu bazuten ere, guztiek jaso zuten saria.



MEREZI DU SORIRAINO JOATEA FUTBOL TALDEA ANIMATZERA

Joan den zapatuan jokatu zuen Athleticen Numantziaren kontra, eta Arrasateko koadrila hau Bergarako jarriztaileekin batera joan zen Soriana partidua ikustera. Goizeko bederatzietan irten ziren Bergararik, eta 13:00ak aldera iritsi ziren hara. Bazkaldu aurretik txikiteoan ibili ziren, eta horrelako partiduetan Sorian izaten den giro ederraz gozatu zuten. Presidenteek ere jakiten dute non dagoen parranda, ikusi bestela norekin elkartu ziren txikiteoan.

AURREKONTUA/ 37.470.035,96 euro 2005erako

la 40 milioi euroko aurrekontua zehaztu dute 2005eko jardunaldirako

UBANE MADERA

37.470.035,96 euroko aurrekontua onartu du udalbatzarrek 2005. urterako. Diru kopuru horretatik 35 milioi euro pasatxo Udalaren jardunerako izango dira; Iturbide egoitzarendako bi milioi pasatxo eta ia milioi eta erdi euro AUKEArendako.

Joan den abenduaren 27an onartu zuen udalbatzarrek aurtengo aurrekontua. EAJ, EA, EB-Berdeak eta Aralar udal taldeek proposamenaren alde bozkatu zuten. PSE-EE eta PP, berriz, abstenitu egin ziren. PPko ordezkari Itziar Lamarainek adierazi digunez, abstenitu egin ziren "batetik, ez direlako gure aurrekontuak. Eta bestetik, berandu aurkeztu zizkigutelako. Ez genuen astirik izan ondo aztertzeke eta gauza batzuk proposatzeko. Hori bai, ez gaude aurrekontuen kontra. Aurrekontuak aurkeztu aurretik udal gobernuarekin berbetan ibili ginen eta zenbait proposamen egin genituen. Hala, aurrekontuetan partida bat zabalik laga dute, guk egindako proposamenak lantzeko aukera izateko. Jarrera positiboa erakutsi digute. Esaterako, proposatu genuen Arrasaten oroigarri bat ipintzea terrorismoak eragindako biktimak gogora ekartzeko".

PSE-EE-REN ARRAZOIAK

PSE-EEko ordezkari Blanca Roncalek, berriz, antzerako arrazoiak eman dizkigu alderdiaren abstentzioa justifikatzeko: "Iazkoarekin alderatuz hobekuntzak ditu aurtengo aurrekontuak, eta horregatik ez dugu kontra bozkatu; besteak beste, guk egindako proposamenetako batzuk onartu egin

dituzte". Proposamen horien artean, Blanca Roncalek nabarmendu digu terrorismoak eragindako biktimen alde zerbait egitea onartu dutela. Horrekin batera, preso senitartekoekin lotutako beste proposamen bat onartu dutela ere adierazi digu. Hain zuzen ere, zera eskatu du PSE-EEK: dirulaguntzak eskatzen dituzten gainerako herritarrekin egiten den moduan, preso senideen kasuan ere kontuan hartzea irizpide ekonomikoak. Hau da, eskatzailearen egoera ekonomikoa kontuan hartzea.

Bestelakoan artean, Blanca Roncalek gaineratu digu egindako beste eskaera batzuk ez dizkietela onartu: esaterako, PSE-EEK eskatu zuen idazkari bat izatea udal talde politiko bakoitzak. Hau da, Legebiltzarrean eta egiten duten moduan, udal talde politiko bakoitzak konfiantzako pertsona bat izatea idazkari lanak egiteko (egun erdiko lanaldian). Udal gobernuak proposamena onartu ez duen arren, Blanca Roncalek uste du aurrerago onartuko dutela.

Kontuak kontu, oro har, zera azpimarratu digu Blanca Roncalek: "Elkarrizketarako ahalegina egin dute, baita jarrerak malgutzeko ere. Hori ikusita, konfiantza pixka bat eman nahi izan diegu".

DIRU GEHIENA, INBERTSIOETARAKO

Bestalde, aurrekontuari berari begiratuta, datu batzuk aipatzearen, esan beharra dago iaz baino %17 handiagoa dela aurtengo aurrekontua. Gastuen atalari begiratuta, berriz, partidarik esanguratsuen inbertsioak egiteko erabiliko du Udalak: 13.498.565 euro. Hortik, diru kopururik handiena kultura etxea egiteko erabiliko du: 2.480.000 euro.

Sarreraren atalean, berriz, transferentzia korronteen (diru-



Aurtengo diru partidarik handiena kultura etxea egiteko lanendako erabiliko du Udalak.

laguntzak eta Diputazioak jasotako zergetan Arrasateko Udalaren partizipazioa) bitartez lortuko ditu Udalak diru sarrerarik garrantzitsuenak: 12.699.810 euro. Baita udal tasei esker ere: 7.236.973,96 euro.

Bestelako zifra batzuk aipatzearen, datorren urteari begira Udalak 1.541 euro gastatuko ditu biztanle bakoitzeko; 1.283 euro jasoko ditu biztanleko eta 620 euro inbertituko ditu biztanleko. Azken eroldaren arabera, Arrasatek 22.887 biztanle ditu.

Inbertsio aipagarrienak

Kultura etxea	2.480.000
Mojategiko kirol instalazio berriak	1.850.000
Biteri aparkalekua egin eta urbanizatzea	1.100.000
Abaroa eta Musakolako erretiratuaren egoitza berriak	870.000
Zerrajera 2 urbanizatzea	817.000
Makatzena eta Santa Teresa biziberritzea	500.000
Musika etxea eta Industria Museoa	500.000
Azoka eta Mondragones kaleak urbanizatzea	350.000
Iturbide egoitza berritzea	300.000
Udala auzoko saneamendua	300.000
Bestelakoak	4.431.565

Sexuaren eta sexologiaren gaineko webgunea abiarazita

U.M.

Sexuaren edo sexualitatearen gaineko edozein kezka, jakin-min, zalantza... argitzeko bide berria zabaldu dute Arrasaten: Udal Sexologia Zerbitzuaren webgunea. Herritarren eskura ipini dute zerbitzu berria, sexologian adituak direnek behar duenari lagun diezaioten.

Sexuarekin edo sexologiarekin lotutako proposamenak, kezkak, galderak... egin daitezke www.sexologiazerbitzua.com hel-

bidean. Aholkuak ere eska daitezke. Webgunearen beste aldean, sexologian adituak direnak izango dira, kontsulta guztiei erantzuteko gertu. Halakoetan askotan pentsatzen da gazteei zuzendutako zerbitzuak direla horiek, eta ez da hala. Hain zuzen ere, argi utzi dute sexologia zerbitzuaren webgune berria adin guztietako pertsoneri zuzendutako zerbitzua dela.

Zalantza eta argitzeaz gain, sexologiaren gaineko zenbait webguneren helbideak ematen ditu webgune horrek; sexuarekin lotutako artikulua ere badira, eta

sexologiarekin lotutako ekintzen eta ekimenen berri ematen du.

'ZEIN DA ZURE EROTIKA?'

Esaterako, Udal Sexologia Zerbitzuak abiarazi berri duen *Zein da zure erotika?* kanpainaren berri ematen du oraintxe webguneak. Urtarrilean eta otsailean landuko dute *Zein da zure erotika?* kanpaina. Besteak beste, sexualitatea bizitzeko era guztiak txalotu nahi dituzte kanpaina horren bitartez. Informazio gehiagorako jo Sexologia Zerbitzura edo sexologiaren gaineko webgune berrira.



ONJI ETORRI!

Arrasateko Udaleko SEXOLOGIA ZERBITZUA

Kaio laguntza

Ongi etorri Arrasateko Udaleko SEXOLOGIA ZERBITZUA web onira.

Zerbitzua hau adin guztietako pertsoneri zuzendutako da, gure zerbitzua sexu edo sexualitatearen inguruko edozein kontuzitate nahi; keza, kezka, galdera, gurea da. Bertan, sexualitatearen adinaren aldean, sexualitatearen inguruko informazio eta aholkularitza wakainiko dituzte.

Harreriaz eta jarduera...

Bulegora etor zaitezke. Beharrik edo zure lagunekin edo telefonoz deitu dezazazu. Bestela, martxoaren 14an dugu web orri honen bitartez "Internetuz" atalari gurekin harremanetan jar zaitezke.

Guztorez gure zerbitzuak ez du ezer kostatu.

© 2005 ARRASATEKO UDALAK. BARRASATEKO UDALAK. BARRASATEKO UDALAK. BARRASATEKO UDALAK. BARRASATEKO UDALAK. BARRASATEKO UDALAK.

ELKARRIZKETA

PEDRO LUIS URANGA/APAIZA

“Denbora luzea behar da apaiztea erabakitzeke; lau urte eman nituen”

ARRASATE IRRATIA / UBANE MADERA

Arrasaten apaiz berria dugu joan den abenduaren 26az geroztik. Zumaiarra da bera: Pedro Luis Uranga. Eta nahiz eta apaiztu berri izan, dagoeneko hamar bat hilabete egin ditu Arrasaten, praktika moduan.

Esan dugun moduan, Arrasate ezaguna da zuretako, ezta?

Bai, ia urtebete daramat hemen. Edozelan ere, aurretik ez nuen ezagutzen. Zumaiatik Gipuzkoako inguru hau dezente urruti ikusten dugu.

Hemendik aurrera hemen biziko zara. Badakizu noiz arte?

Ez dakit noiz arte. Hasteko, sei urterako-edo izango da, baina hori aldatu egin daiteke; esaterako, beste nonbaiten apaiza behar badute, sei urteak baino lehen eramate gaituzte. Edo baliteke Arrasaten denbora luzeagoz geratzea.

Abenduaren 26an izan zenuen ordenazioa; zela gogoratzen duzu egun hori?

Oso egun polita izan zen. Eta esango nuke oraindik ez dela pasa; biharamun moduko bat bizitzen nabil. Begira, ordenazioa baino sei hilabete lehenago diakonotza pausoa eman genuen eta hura oso pozik bizi izan nuen. Eta oraingoa ere pozik bizi izan dut, baina beste mota bateko poza izan da, helduago-edo. Gusturago ibili naiz.

Familia eta lagunak hantxe izango zenituen...

Familia bai. Arrasateko parrokiatik, berriz, autobusa antolatuta zuten eta 40 bat lagun joan ziren, Zumaiatik ere joan ziren koadrilakoak, Bilbotik unibertsitate garaiko lagunak... Beste batzuek asmoa bazuten, baina eguraldia zela-eta, ezin izan ziren etorri.

Parrokia izango da zure lantokia, modu baten esanda?

Arrasateko parrokia guztiak: Musakolako, San Andreskoa, San Juan... Igandeetako eukaristietan batetik bestera ibiliko naiz.

Gaztea zara. Halakoetan egiten den galdera erantzuteko eskatuko dizut: gazte bat apaiz 2005ean, zergatik? Zertarako? Noiz hartzen da erabaki hori?

Denbora luzea behar da erabakia hartzeko. Nik lau urte-edo eman nituen. Unibertsitatean nengoela hasi nintzen nire buruari galdetzen etorkizunaren gainean... Matematika ikasten nengela, eta hirugarren mailan-edo nengoela hasi nintzen zalantzan. Seminarioarekin jarri nintzen harremanetan eta hango erretorearekin berba egin nuen. Karrera bukatu arte bueltak ematen ibili nintzen. Askotan esan ohi dut erabakiak zeu hartzen zaituela, zeuk erabakia hartu beharrean. Maitemin-



“Arrasateko parrokia guztiak izango ditut lantoki; igandeetan batetik bestera ibiliko naiz”

tzea bezala. Zuk parte hartzen duzu, baina nolabait maitemintzeak hartu egiten zaitu zu. Halako zerbait gertatzen da. Zeuk argudioak dituzu, aldekoak eta kontrakoak, baina azkenean heltzen da puntu bat diozuna: apustu bat egingo dut; uste dut hemen aurkituko dudala nire lekua bizitzan. Hala, karrera bukatu eta seminariora joan nintzen. Seminarioko lehenengo urteetan ere ez nuen oso garbi, eta unibertsitatearekin lotura gordetzeko, Matematikako tesina bat egin nuen seminarioko lehenengo hiru urteetan. Bide biak bateratu nituen, nahiko garbi ikusi arte.

Gabonetan, Ibarretxe Planaren berbagai izan da; horrek Elizaren zeresana sortu du; ez dakit

“Espainiako zenbait gotzainek egin dute halako elkargo bat aukera politiko zehatz batzuekin”

iritzirik emateko moduan zauden ala politika kontuak nahia go politikarien esku uztea?

Segituan diogu politikak eta erlijioak berezituta egon behar dutela. Nik, berriz, zera diot: politika ondo ulertuta, giza partaidea gisa, dena dela politika. Eta erlijioa ere gauza politikoa da. Beste kontu bat da gauza zehaztetan sartzea, eta sartzeko modua. Adibidez, Aita Santuak Irakeko gerraren kontra egiten duenean, politika egiten du, baina ondo ikusten da, giza eskubideak zapaltzen dituen ekimen baten aurrean gaudelako. Beste gauza bat da Espainiako zenbait gotzainen dokumentua. Donostiako gotzain Juan Mari Uriartek atera zuen prentsa ohar bat jarrera horretatik aldentuz.

LABUR

Odola ematera joateko deialdia egin du Arabako Odol Emaileen Elkarteak

Urtarrilaren hasiera ezker Arabako Odol Bankukoak anbulatorioan dira odola ateratzen. Jakinarazi digutenez, datozen bi asteotan ere izango dira; hortaz, odola ematera joateko deia egin gura dute. Hain justu ere, urtarrilaren 19an (eguztena), 26an (eguztena) eta 27an (eguztena) izango dira, 16:30etik 20:00ak arte. Odola emateko jakin beharrekoak ere helarazi dizkigute: esaterako, 18 urtetik gorako eta 66 urtetik beherako edozeinek eman dezakeela, betiere, gutxienez, 50 kilo pisatzen badu; ez dela baraurik joan beharrik eta odola atera baino lehen pertsona ea ondo dagoen aztertzen dutela.

Gainerako euskal preso politikoekin batera, Arrasatekoak ere itxialdia egiten dabilta

Joan den urtarrilaz geroztik, euskal preso politikoak itxialdiak egiten dabilta. Hamar eguneko itxialdiak egiten dabilta, txandaka. Oro har, euren kartzelaratzeari arrazoi politikoek eragindakoa dela aldarrikatu gura dute. Hala, Euskal Herriak bizi duen gatazka politikoaren ondorio direla adierazi nahi dute, eta horrenbestez, gatazka konponbidean parte hartzeko eskubidea dutela aldarrikatu gura dute. Horrekin batera, presoan Euskal Herriratzeari eskatuko dute protestarekin, dispertsioak dagoeneko 35 hildako eragin ditu-eta. Euskal preso guztiek parte hartuko dute protestaldian, baita Arrasatekoak ere. Are gehiago, presoan aldeko Etxerat elkarteak adierazitakoaren arabera, itxialdi guztietan izango da Arrasateko presoaren bat. Hala, urtarrilaren hasierako txandan Jesus Mari Zabarte dabil; eta bigarrenean Josu Uribebarriak ekingo dio.

Data zehaztu barik duten arren, aurten hasiko dira Epelen araztegia egiten


Aspaldi dela jakinarazi zuten Arrasaten araztegia egiteko proiektua zegoela. Eta badirudi aurten hasiko direla lanok egiten. Debarroko araztegiarik handiena izango da, eta Eskoriatzako, Aretxabaletako eta Oñatiko ur zikinak garbituko ditu. Epelen eraikiko dute, Eibar-Gasteiz autobidea eraikitzen dabiltzan inguru hartan. Edozelan ere, Udaletik jakinarazi digutenez, oraindik ez diete informaziorik bidali. Halaber, Arrasateko Udalak Diputazioari eskatu behar dio gaiaren gaineko informazioa. Hori bai, aurreratu digute datorren otsailaren 1ean araztegia eraikitzeke behar diren lurren desjabetze espedientearen aktak jasoko dituztela. Hala, bada, inguruko lurjabeek hitzordua dute egun horretan Arrasateko Udaletxean. Lurjabe gehienak Bergarakoak eta Oñatikoak dira; Arrasaten, lurjabe bakarra dago inplikatur, Etxezarretakoa.

Tranbiaren proiektua jendaurrean dago; besteak beste, haren ibilbidea ikus daiteke

Udaleko Hirigintza Sailatik jakinarazi digutenez, Debagoiena zeharkatuko duen tranbiaren trazadura-proiektua udaletxean dago. Hain justu ere, tranbia eraikitzeke lanen lehenengo zatia ipini dute jendaurrean, Bergararik-Aretxabaletako ibilbidea, hain zuzen. Hala, interesa duenak proiektua bera ikus dezake; eta kaltetuek alegazioak egin diezaioke. Euskal Herriko buletinean argitaratzen den momentutik, 30 eguneko epea izango dute alegazioak aurkeztu ahal izateko. Tranbiaren lehenengo zatia ibilbidea Bergaran hasiko da, herriaren iparraldeko industrialdean. Bergarako erdigunetik pasatuko da, eta gero, Arrasaterako bidea hartuko du. Ibilbide horren arabera, tranbiak Arrasate erdialdetik zeharkatuko du, Aretxabaletarako bidea hartuko du eta Aretxabaletako erdigunean bukatuko da.

Herritarrek badabilta ‘Autoan Elkarrekin’ izeneko ekimenean parte hartzen

Dagoeneko 33 lagunek bat egin du Udalak abiarazitako *Autoan Elkarrekin* ekimenarekin. Irailean abiarazi zuen ekimen hori, herritarrek autoa hobeto erabil dezaten. Azken batean, helburua da autoarekin egin beharreko bidaiak konpartitzea. Hala, *Autoan Elkarrekin* ekimenak hiru bide proposatzen ditu autoa konpartitzeko: lanera doazenendako; unibertsitateko doazenendako eta noizbehinka egiten diren bidaiak konpartitzeko. Modu horretan, bidaiariendako bidaia bera merkeagoa izateaz gainera, erregai gutxiago kontsumituko litzateke eta ondorioz, kutsadura ere gutxituko litzateke. Ingurumen Saileko Joseba Ugaldek Arrasate Irratiari esandakoaren arabera, ekimena oraindik berri samarra da; hala, oraingoz 33 lagunek eman dute izena programan, baina kalkulatzeko dute ekimenak urtea betetzen duenean, 133 erabiltzaile izan ditzakeela. Helbidea honakoa da: www.compartir.es edo www. arrasate-mondragon.org.



ARTXIBOA

Kiroldegi abonua izateaz gain, Antoñan dagoen gimnasioa erabiltzeko aparte ordaindu beharko da.

KIROLDEGIA

Aurtengo kiroldegiko abonuetan ez da igoera nabarmenik egongo

Abonu eta prezio guztiek KPlren igoera izango dute: %3,5

XABIER URTZELAI

Urte berriarekin batera atara ditu AUKEAK aurtengo kirol zerbitzuetako abonua eta prezioak. Joan den urtean igoera nabarmena izan zen (%10), baina aurtengoa ez da horrelakorik egongo. Kirola egiteko aitzakia bat gutxiago.

Kiroldegiko berritasun lanak egin zituztenean ezarri zuten abonua sistemarekin jarraituko dute AUKEAKoek. Hala, lau abonua mota izango dira aurtengoa: igerileku abonua (96,25 euro), kiroldegi abonua (96,25 euro), abonua plu-

sa (144,35 euro) eta udako abonua (48,10 euro). Prezio horiek bakar-kakoak dira, baina gazteendako abonua merkeagoak dira eta abonua familiarra egiteko aukera ere bada (150,80 euro igerileku edo kiroldegi abonuan eta 226 euro abonua plusean).

Horrez gain, egun bakarrerako sarrerak 5 euro balioko du, eta 20 urtetik beherakoek 2,50 euro ordaindu beharko dituzte.

BESTE ZERBITZU BATZUK

Musakolako kiroldegiko zerbitzuez gain, Uarkapeko eta Iturripeko kirol instalazioak ere herri-tarren esku daude. Uarkapeko

pilotalekua alokatzeko, bazkideek ez dute ezer ordaindu behar; bazkide ez direnek, berriz, 7,10 euro ordaindu behar dituzte ordu bete erabiltzeagatik. Uarkapek eskalatzeko aukera ere eskaintzen du; boulderrera sartzeko 2,15 euro ordaindu behar dira, baina bada- go aukera 24,25 euro ordainduta urteko abonua egiteko.

Iturripen, normala den moduan, pilotalekuak alokatzea Uarkapen baino merkeagoa da, eta barruko kantxa alokatzeko 27 euro ordaindu behar dira. Horrez gain, AUKEAK baditu beste hainbat kirol zerbitzu. Informazio gehiago 943 77 16 77 telefonoan.

ZALDIBARARETOFUTBOLA

EMAITZAK

Abokajarro - La Kuadrilla	4-8
Ekipo Aldeano - Lasagabaster	1-9
Dribling - AC Surcos	6-3
Betrayer - Iriztu	4-6
HLB 108 - Fuxion	4-5
Irati Taberna - Saukelu Scream	7-4
AT Celaya - Torpedo Musakola	11-6
Goma2 - You Know!	2-4

SAILKAPENA

MULTZO BAKARRA	P	J
1. You Know!	12	7
2. Irati Taberna	11	7
3. AC Surcos	10	7
4. Lasagabaster	10	7
5. Dribling	9	7
6. Iriztu	9	6
7. Betrayer	8	6
8. HLB 108	8	7
9. Saukelu Scream	8	6
10. Goma2	8	6
11. AT Celaya	7	6
12. La Kuadrilla	6	7
13. Abokajarro	4	7
14. Torpedo Musakola	3	7
15. Ekipo Aldeano	3	7
16. Manhattan Pippol	2	6
17. Tomahawk	2	6
18. Billy & The Cowboys	2	5
19. Fuxion	2	7

PARTIDUAK

URTARRILAK 15, ZAPATUA. EPAILEAK

11:00: Manhattan Pippol - Fuxion	Dribling
12:00: Dribling - Iriztu	Manhattan Pippol
13:00: AC Surcos - La Kuadrilla	Iriztu
16:00: HLB 108 - Tomahawk	Betrayer
17:00: Betrayer - Saukelu Scream	Tomahawk
18:00: Abokajarro - Lasagabaster	Saukelu

URTARRILAK 16, DOMEKA. EPAILEAK

11:00: Goma2 - AT Celaya	Billy & The...
12:00: Billy & The... - You Know!	AT Celaya
13:00: Irati Taberna - Torpedo M.	You Know!



HELDU DA IZERDIA BOTATZEN HASTEKO ORDUA

YOU KNOW! TALDEKO JOKALARI BAT BI URTERAKO ZIGORTUTA

Gabonetako oporrak atzean utzita, heldu da Zaldibarrera hurbildu eta oporretan jandako guztia erretzen hasteko ordua. Batzuk deseatzten egongo dira izerdi apur bat egiten hasteko, eta bihurtik aurrera izango dute horretarako aukera. Saillkapenari begiratuta norgehiagokak gomendatzea ez da fidagarria, baina ausartuko ginatete esatera Dribling-en eta Irizturen arteko partidua ikustekoa izango dela (zapatuan, 12:00etan), baita Betrayer eta Saukelu Scream taldeek jokatu dutena ere (zapatuan, 17:00etan).

Bestalde, jokalariek batzuek zigor-tuta hasiko dute urtea. Aipatzekoa da You Know! taldeko jokalaria bat bi urterako bota dutela kalera. Goma2-ren kontrako partiduan muturrekoa eman zion jokalaria bati, eta joan den urtean ere beste horrenbeste egin zuen. Orduan txapelketatik bota zuten, baina oraingoan bi urterako zigorra ezarri diote. Goma2 taldeko jokalaria bat, bestalde, partidua baterako dago zigortuta.

KIROLAGENDA

JOKATZEKOAK

FUTBOLA

Mondra - Oiartzun
Preferentea. Zapatua. 15:45. Atxabalpen.
Antiguoko - Mondra
Ohorezko Gazteak. Zapatuan. 15:30. Berion.
Arrasate - Segura
Gazteak. Zapatuan. 11:00. Atxabalpen.
Arrasate - Zarautz
Ohorezko Kadet. Domekan. 11:00. Atxabalpen.
Almen Aretxabaleta - Mondra
Neskak. Zapatuan. 16:00. Almenen.

SASKIBALOIA

Deustoko Unib. - Mugarrri Alkesa
Lehenengo Maila. Domekan. 12:00. Bilbon.

ERRUGBIA

EHU Bilbo - Arrasate
Seniorrak. Zapatuan. 16:00. Bilbon.

ESKUBALOIA

Usurbil - AGR Arrasate
Lehen Ter. Domekan. 11:30. Usurbilen.
Arrasate - Ereintza
Gazteak. Neskak. Domekan. 10:00. Iturripen.
Arrasate - Bergara
Bigarren Ter. Domekan. 11:30. Iturripen.

PILOTA

Atarrabia - Arrasate
Euskadiko Txap. Gaur. 21:00. Atarrabian.

ATLETISMOA

Euskadiko Txapelketa
Anoetan. Zapatuan. 16:00etan.

Gipuzkoako Kros Txapelketa

Arraten. Domeka goizean. Markel Blanco gaztea eta Arrasateko atleta beteranoak izango dira.

EMAITZAK

PILOTA
Euskadiko Txap: Arrasate-Lesaka 18-22

PILOTA

Lazkanok hasi du Euskadiko Txapelketa

Gipuzkoako Txapelketan egindako lanari esker sailka-tu da aurtengoa ere Aitzol Lazkano Euskadiko Txapelketa-rako. Joan den astean jokatu zuen lehen jardunaldia, eta arrasatearrak 22-18 galdu zuen Lesakako ordezkariaren kontra. Gaur, berriz, Atarrabia-ra joango da Lazkano, 21:00etan daukan norgehiagoka jokatzera. Bost jardunaldik osatuko dute lehenengo fasea, eta Arrasatekoak Bizkaiko, Arabako eta Nafarroako pilotarien kontra neur-tu beharko ditu indarrak. Lehenengo fasean aurrera egi-tea du helburu nagusi.

SASKIBALOIA

Deustuko Unibertsitatearen kontra, domekan

Mugarri Alkesa Saskibaloi Taldeak domekan izango du joan den astean eskuratu ez zituen puntuak eskuratzeko aukera. Arrasateko taldeak seigarren postuan dagoen Deustuko Unibertsitatearen kontra jokatu du, eta bizkaitarrak arrasatearrak baino gorago badaude ere, Deustukoek Gorka Zurututzaren taldeak baino partidua bat gehiago baino ez dute irabazi.

Erasoan ondo ibili baziren ere, defentsan makal ibilita galdu zuten Mugarri Alkesa-koek Iraurgiren kontra. Gal-tzen hasi dute urtea, baina posible da horri buelta ematea.

ATLETISMOA

Euskadiko Txapelketa, bihar, Anoetan

Jonathan Perez, Unai Sarabia eta Lander Errasti izango dira Arrasateko ordezkariak. Jonathanek inoiz baino gertuago dauka amestutako helburua: pertikarekin bost metroko jauzia egitea. Urtea hasteko modu ezin hobea izango litzateke. Unai Sarabiak ikasketak dire-la-eta alde batera utzita izan du atletismoa, baina berriro ere itzuli da, marka txukunak egi-nez, gainera. Kontuan izan hura dela Arrasateko korrikalari azkarrena, 60 metro zazpi segundotan egiteko gauza izan da-eta. Azkenik, ikusteko dago Lander Errastik txapelketan esku hartu ahal izango duen.

FUTBOLA

Sailkapeneko azken postuan dagoen Oiartzunek ez du oparirik merezi

Bi norgehiagoka bakarrik irabazi dituen Oiartzunen kontra jokatuko du Mondrak bihar (15:45, Atxabalpen)

XABIER URTZELAI

Sailkapenaren erdialdean amaitu du Mondrak lehenengo itzulia. Ez da marka txarra, geratzen den liga erdia gora begira egiten badute. Sailkapeneko azken postuan dagoen Oiartzunen kontra estreinatuko dute bigarren itzulia. Ez dago gehiago esaterik.

Eta norgehiagoka horiek izaten dira askotan irabazteko zailenak. Oiartzunek, baina, ezer gutxi erakutsi du orain arte, eta dagoeneko erregional mailan dauka bi hanketako bat: norgehiagoka bi irabazi eta beste bost berdindu dituzte. Horrela eskuratu dituzte dauzkaten 11 puntuak. Kontua ez da azkenak direla, kontua da hurrengo sailkatuak, Beti Gaztek, Oiartzunek baino zazpi puntu gehiago dituela. Hilzorian dagoen Oiartzuni esperantza emateko edo Arrasateko taldea lehenbailehen gora begira jartzeko balioko dute bihar Atxabalpen jokoan egongo diren hiru

puntuak. Gora begira jartzeko, Mondrak joan den astean Mutrikuren kontra egindako partidua baino txukunagoa egin beharko du. Mingarria izan zen Mutrikuk azken minutuetan norgehiagoka berdintzea, baina hori ez zen mutrikuarren meritua izan, Arrasateko taldeak sekulako erraztasunak eman zituen-eta.

KEINU AUSARTA

Egiten zuen hotza gainetik kendu ezinka ibili ziren jarraitzaileek, baina, pozteko moduko keinu ikusi zuten: Josu Zubiak gazte mailako jokalaria bat hamaikakoan jartzeko arazorik ez daukala erakutsi zuen, eta gainera, gazte mailako jokalaria horrek, Julen Herizek, ondo erantzun zuen. Julenek egin zuen Mondraren gola, nahiz eta mutrikuarrek huts galanta egin zuten markaketa. Julen erretiratu zenean gogotsu zelairatu zen *Tiri*, eta bereak izan ziren azken gol aukerak. Behar ditu Mondrak aurrelari trebeak, eta esango nuke etxean daudela.



AITOR LIZARRALDE

Mutrikuren kontra berdinduta ere, urte berrian jokoan egon diren sei puntuetatik lau eskuratu ditu Mondrak.

Besaide Mendi Elkarateak hainbat eskaintza ditu eskiatzera joateko

X.U.-

Neguan buru-belarri ibiltzen dira Besaidekoak lanean. Zurituta daude Pirinioetako mendiak, eta horrek aukera handiak ematen ditu. Eski alpetarra edo mendiko eskia egin gura duenak izango du non aukeratu; adi Besaideren proposamenei.

Besaidekoek mendiko eskia egiten ikasteko irteera antolatuta dute datorren urtarrilaren 22ko eta 23ko astebururako. Irteera Portaletera egingo dute (Formigal inguruan), eta derrigorrezkoa izango da federatua egotea eta oinarrizko biraketak egiten jakitea. Izena emateko egunak urtarrilaren 17a, 18a eta 19a izango dira. Eta izena emateko orduan 30 euro aurreratu beharko dira.

ESKI ALPETARRA, ASTEBURURO

Oraingo asteburuan hasiko du Besaidek urtero-urtero Formigalera egiten dituzten irteerak. Urtarrileko, otsaileko eta martxoako asteburuetan joango dira, eta prezioa oraindik erabaki ez badute ere, esan digute ehun euro inguru izango direla. Prezioak nola dauden ikusita, ez da aukerarik batere txarra. Besaiderekin



X.U.

Harrera ona izan zuen Belen Eguzkitzaren eta Poto Gorrotzategiren ikus-entzunezkoak.

eskiatzera joan gura duenak astelehenetan, martitzenetan edo eguaztenetan izango du izena emateko aukera. Informazio gehiago 943 77 30 66 telefonoan.

IKUS-ENTZUNEZKOA, MONTERRONEN

Eguaztenetan, harrera ona izan zuen Belen Eguzkitzak eta Poto Gorrotzategik egin zuten ikus-entzunezkoak. Bikote hori Kana-

dan izan da mendiko eskia egiten, eta bidaia horretako bizipenak kontatu zituzten. Alpeetan egindako lagunek gonbidatuta joan ziren hara. Lehenengo egunak AEBn egin zituzten, Salt Lake City inguruan, eta gero jo zuten Kanada aldera. Zazpi eguneko mendi zeharkaldia egin zuten eta hasieran oso konbentziturak izan ez baziren ere, ez ziren damutu.

FOTOKIROLA



Errugbikoak EHUn kontra, Bilbon

Arrasate Errugbi Taldeak Bilboko EHU taldearen kontra jokatuko du bihar arratsaldean (16:00etan, Bilbon). Etxean jokatzen dutela kontuan hartuta, bilbotarrak kontrario gogorra dira. Garagartzan ere irabazi egin zuten bizkaitarrek, baina uste baino zailtasun handiagoekin; Arrasatek azken unera arte lau puntuko aldeari eutsi zion-eta. Gainera, azkeneko postuetan dauden Santanderkoek ere lana eman zieten. Horrek guztiak erakusten du posible dela Bilbotik punturen bat ekartzea. X.U.

ELKARRIZKETA

BEGOÑA GARAIZABAL/MARGOLARIA

“Aitak animatu ninduen margotzera; nik egindako guztia zor diot”

IKER BARANDIARAN

Begoña Garaizabal elorriarrak margolanen erakusketa jarri du Harresi aretoan. Hilaren 24ra arte dago ikusgai. Garaizabal elorriarra den arren, Arrasateko hainbat plaza, baserri eta eliza margotu ditu.

Txikitatik datorkizu margotzeko zaletasuna?

Bai, hala da. Gogoan daukat umetan ez zidala axola jolas-ordu barik gelditzeak. Mojak eta bestelakoak margotzeko baliatzen nuen. Horren orde, margotu barik zigortzen nindutenean, oso txarto pasatzen nuen.

Eta noiz hasi zinen olioak margotzen?

Aitak asko lagundu ninduen horretan. Aitak ez zuen margotzen, baina lagun margolari asko zituen eta haiek aurkeztu zizkidan. Askotan Bilbora eramaten ninduen erakusketak ikustera. Aitaren asmoa zen ni Bartzelonara joatea Arte Ederrak egitera, baina etxean beste premia batzuk zeuden. Aitak 12 urterekin oliomargoak oparitu zizkidan.

Zure kabuz ikasi zenuen ala eskolak jaso zenituen?

Gogoan daukat Bilboko margolari asko Elorriara etortzen zirela margotzera. Nik bizikleta hartu eta haiek ikustera joaten nintzen. Behin baino gehiagotan eskolatik piper egin nuen horretarako. Zelan margotzen zuten ikusten egoten nintzen, eta asko eragin zidaten. Haiek ikusten ikasi nuen batez ere. Horrez gain, erakusketa askotan egon izan naiz, beste batzuen lanak ikusten.

Lehiaketetan esku hartzeko ohiturarik badaukazu?

Lehen, lehiaketa askotan esku hartzen nuen. Baina umeak izan nituenean, denbora batez utzi egin nuen. Eta azken bost urteotan berriro ekin diot. Herri askotan izan naiz: Bizkaian, Gipuzkoan, Nafarroan, Burgosen... Oso gustuko dut herri batera heldu, motibo bat aukeratu eta azkar margotzea. Hala ere, aspaldian gehiago nekatzen naiz eta alferkeria handiagoa ematen dit batzuetan halakoetara joateak.

Hainbat lehiaketatan sariak eskuratu ditut: Otxandion, Aretxabaletan, Bermeon, Zarautzen, eta abar.

Erakusketa asko egin dituzu, ezta?

Bai, besteak beste, Zaragozan, Donostian, Gasteizen, Zumarragan, Bilbon, Durangon, Algortan, Sestaon... Norberak egiten duena erakutsi egin behar da. Horretarako margotzen dugu, gero beste batzuek ikus dezaten.



IKER BARANDIARAN

“Bizikleta hartu eta eskolatik piper eginda joaten nintzen margolarien lana ikustera”

Lanak salgai jartzen ditut, baina aspaldian Euskal Herrian asko jaitsi da margolanen salmenta. Lehen, asko saltzen zen.

Beti paisaiak margotzen dituzu?

Bai, hori dut gustukoen. Inoiz erretraturen bat eta marrazki batzuk egin izan ditut, baina gehienetan paisaiak egiten ditut.

Lekuan bertan margotzen duzu ala argazkien bitartez?

Batzuetan argazkia egin eta hori abiapuntu hartuta margotu egiten dut. Beste batzuetan, berriz, lekuan bertan margotzen dut. Zirriborroak eginda ere margotu izan dut.

Harresi aretora 35 bat lan ekarri dituzu eta horietatik asko Arrasatekoak dira...

“Erakusketak oso gustuko ditut. Norberak egindakoa erakustea oso garrantzitsua da”

Bai, hala da. Izan ere, Elorrio Arrasatetik oso hurbil dago eta seme-alabek hemen ikasi dutelako-eta, egokitu zait sarritan Arrasatera etortzea.

Arrasateri dagokionez, besteak beste, inguru hauetako margolanak batu ditut: San Isidro eliza eta Musakolako inguruak, Herriko Plaza, Villafre etxea -Meatzerreka auzoan-, Murri baserria, Uribarriko eliza eta inguruak, Jose Letona plaza, Arrasate pasealekua, Etxe Txikiak, Villa Tranquilla, Arbolapeta eta Portalioa, besteak beste.

Horrez gain, Zarautz, Donostia, Lizarra, Eibar eta Bilboko paisaiak ere margotu ditut. Mendi ingurukoak, itsas aldekoak, eta abar.



ARRASATE PRESS

Musikal erromantikoa, drama bat eta animazioko filma

I.B.

Udaleko Kultura Saila joan den astean hasi zen Amaia Udal Antzokian filmak ematen. Asteburuan musikal bat emango dute; domekan, animazioko film bat; eta eguenean, drama bat.

Urtarrilarekin bat film emanaldiak egiten hasi dira berriro Amaia Udal Antzokian. Gaur, egubakoitza, domekan eta astelehenean, *¿Bailamos?* filma emango dute. Film musikala da eta 106 minutu irauten du. Peter Chelsomek zuzendu du (*Los comediantes, Serendipity...*).

John Clark oso gustura bizi da: lanbide ona dauka, emaztea zoragarria da eta baita familia ere. Baina, halako baten trenetik emakume xarmant bat ikusiko du. Egunero ikusiko du eta egun batean hura ezagutzeko dantza eskoletan emango du izena. Dantzan ikasten duen bitartean, familiak ez du ezer jakingo.

Protagonistak honako hauek dira: Richard Gere (*Chicago, Otoño en Nueva York...*), Jennifer Lopez (*Una relación peligrosa,*

Giro al infierno...) eta Susan Sarandon (*Amigas a la fuerza, Quedate a mi lado, Abajo el telón...*), besteak beste.

ZINEKLUBA, 20:30EAN

Eguenean, hilaren 20an, *La feria de las vanidades* filma emango dute aurtengo zinekluba estreinatzeko. Drama horrek 137 minutu irauten du, eta Mira Nairrek zuzendu du (*Cuando salí de Cuba, La boda del monzón...*).

Lan hori William Makepeace'n liburu baten oinarrituta dago. Familia pobre bateko Becky aberatsa izan gurako du. Horretarako, hainbat trikimailu egin beharko ditu. Sasoi horretan Napoleonek Europa inbaidituko du.

Protagonistak honako hauek dira: Eileen Atkins (*Gosford Park, Cosas de mujeres...*), Jim Broadbent (*El diario de Bridget Jones, Moulin rouge...*) eta abar.

Etzi, domeka, *Los increíbles* animazioko filma emango dute. 115 minutu irauten du eta Brad Birdek zuzendu du. Super-heroi batzuen abenturak kontatzen ditu, eta helduek ere ikusteko modukoa da.

KULTURAPILULAK

Udaleko Kultura Sailak hainbat ekitaldi antolatu ditu datozen asteotarako

Udaleko Kultura Sailak urtarrilerako programazioa aditzera eman zuen, eta, besteak beste, antzerkia, zinema eta zenbait erakusketa iragarri zituen.

Joan den astean emandakoaz eta oraingoan egongo direnez gain, asteburuetako filmei dagokionez, datozen asteotan honako hauek ikusi ahal izango dira: *Crimen Ferpecto, La búsqueda, Garfield* eta *En busca del valle encantado*, hain zuzen ere. Horrez gain, hileko azkeneko eguenean, *La gran seducción* lana emango dute zineklubean.

Zinemaz gain, beste mota bateko ekitaldiak ere izango dira. Horra hor, esaterako, Musikene Haize Ensemble taldearen kontzertua; Monterronen umeen literaturarekin lotuta jarri duten *beldurraren aretoa*; Begoña Garaizabalek Harresi aretoan jarri duen margolanen erakusketa; eta urtarrilaren 23an, Producciones Cachivache taldeak egingo duen *La Nona* antzezlan. Ea otsailan ere hainbat ekitaldi gozatzeko aukera izaten dugun!



IKER BARANDIARAN

Ume eta gaztetxoak arretaz baina gustura dabilta beldurrak zer eragiten duen ikasten eta ikusten.

‘Beldurraren aretoa’ jarri dute Monterronen, gaztetxoendako

IKER BARANDIARAN

Erakusketa bitxia eraman dute Monterronera. Adur, adur, ez naiz hire beldur izena du, eta Galtzagorri taldeak sortu du beldurraren trataera ume eta gaztetxoaren literaturan aztertzeko.

Juan Cruz Igerabideak idatzitako *Jonas eta hozkailu beldurtia* liburua hartu dute abiapuntu. Liburu hori 6 urte inguruko umeei zuzenduta dago. Antolatzaileen esanetan, lan horrek ederto jasotzen du beldurraren eragina umore apur baten laguntzarekin.

Erakusketaren helburuak hauek dira: beldurraren trataera umeen literaturan ezagutzea; barruko eta kanpoko mamuak lantzea; mota horretako literatura adierazpenen ezagupena; eta umeek beldurrari aurre egiteko literaturak eskaintzen dizkien tresnak ezagutzea, hain zuzen.

Jonas eta hozkailu beldurtia

liburuak jasotzen ditu: Jonas txikiak etxean bakarrik gelditzen denean sentitzen dituen taupadak, bururatzen zaizkion kezak... Hori aitzakia hartuta, erakusketak aretoak sukalde baten itxura dauka. Erakusketara heldu bezain laster, begirale batek harrera egingo die eta *Jonasen beldurra* izeneko marrazki bizidunak ikusiko dituzte. Horren ostean, sukaldara sartuko dira eta beldurraren hainbat alderdi ezagutuko dituzte. Horretarako, bost zentzumenak erabili beharko dituzte, eta oso adi egon beharko dute. Modu berean, beldurrarekin lotutako

*Beldurraren
trataera umeen
literaturan aditzera
eman gura du
erakusketak*

pertsoniak aurkeztuko dizkiete, eta umeen literaturako hainbat lan batu dituzte, edozeinek kontsulta ditzan.

IPUIN KONTAKETA ETA BERBALDIK

Ekimen hori, batez ere, ume eta gaztetxoei zuzenduta dago. Horregatik, datozen egunetan herriko ikastetxe guztietako Lehen Hezkuntzako 3. mailako ume eta gaztetxoek bisita gidatuak egingo dituzte.

Udal Liburutegiak beste ekimen batzuk antolatu ditu: urtarrilaren 25ean, Rai Bueno ipuin kontalariak saio berezi bat eskainiko du ahozko tradizioz zabalduko herri ipuinekin. Kontaketa hori 8 urtetik gorakoendako izango da, 18:00etan.

Horrez gain, urtarrilaren 27an, Juan Carlos Alonso psikologoak guraso eta irakasleendako berbaldia egingo du. Hark nabarmenduko du ipuinek umearen garapen psikoafektiboan duten garrantzia.

Musikene Haize Ensemblek kontzertua egingo du bihar

IKER BARANDIARAN

Bihar, zapatua, Musikene Haize Ensemblek kontzertua egingo du Amaia Udal Antzokian. 20:00etan izango da, doan. Antony Payk zuzendutako taldeak Hummel, Strauss eta Spohrren piezak joko ditu.

Musikene Euskal Herriko goimailako ikastegia da. Donostian dago eta han ikasten duten lagunak musikari profesionalak bilakatzen dira. 2001-2002an jarri zuten eskola hori abian, eta halako ikasketak egiteko aukera ematen duen Euskal Herriko eskola bakarra da. Izan ere, Espainiako Estatuan halako maila duten bi eskola bakarrik daude: Donostiakoa eta beste bat Katalunian.

Musikeneko ikasleek hainbat talde sortu dituzte. Ez da lehenengo aldia Arrasatera datozena. Bihar Arrasaten egingo duten saioa hango ikasleek Arrasaten egiten duten bigarren kontzertua izango da.

Oraingo honetan Musikene Haize Ensemble taldeak esku hartuko du Amaia Udal Antzokian. Talde hori ia 40 musikaririk osatzen dute eta haize-instrumentuak jotzen dituzte: flautak, oboak, klarineteak, fagotak, kontrafagotak, tronpak, tronpetak

eta abar. Maila handiko musikariak izango direla ezin ukatu.

ZUZENDARIA, ANTONY PAY

Musikene Haize Ensembleren zuzendaria da Antony Pay. Klarinete jotzaile ingeles horrek ospe handia lortu du nazioartean. Musikari moduan diskografia oso handia dauka. Besteak beste, London Sinfonietta Orkestrarekin eta Nash Ensemble taldearekin ibilia da. Horrez gain, Pay aditua da instrumentu historikoen musika interpretatzen, eta honako taldeekin ere jo izan du: Academy of Ancient Music eta The Orchestra of the Age of the Enlightenment.

Irakasle moduan, mundu osoko klarinete jotzaile gazteak batu dira azken hamarkadetan eman dituen ikastaroetara eta eskola magistraletara. Zuzendari lanari dagokionez, azken urteotan ibilbide oparoa egin du Europako hainbat herrialdetan. Aspaldian, Donostian dagoen Musikene Haize Ensemble taldeko zuzendari lanetan dabil.

HUMMEL, STRAUSS ETA SPOHR

Biharko kontzertuan, J.N. Hummelen *Octeto-Partita, mi bemol mayor*, R. Straussen *Serenade, op. 7, mi bemol mayor* eta L. Spohrren *Notturmo, op. 34, do mayor* joko dituzte. Guztira, ordubete.



MUSIKENE

Haize-instrumentuak jotzen dituzten musikariek osatzen dute taldea.



ZAHARBERRITZEAK
PVC, ALUMINIOA, EGURRA

Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki 3 behe (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

Metal aroztegia eta PVC

Leihoak eta itxierak

Egur aroztegia

Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua

Osagarriak

Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahaiak eta aulkiak

OSORIK
PUB

Ignazio Zuloaga 4
ARRASATE

BITTORI
ERRETEGIA

Eguneko menua - Kartako menua
Espezialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

MUSIKA/ III. Cante Flamenko Txapelketa

Bihartik otsail bukaera arte, Al Andalus elkartearen III. Cante Flamenko Txapelketa

AMAGOIA LASAGABASTER/I.B.

Al Andalus elkarteak III. Cante Flamenko Txapelketa antolatu du. Espainiako Estatuko 18 lagunek esku hartuko dute, eta maila handia egongo dela ziurtatu dute. Finala, Amaia Udala Antzokian egingo dute. Beste saio guztiak, Al Andalusen elkartearen, Musakolan.

Arrasateko Al Andalus elkarteak gertu du guztia Cante Flamenko lehiaketa hasteko. Aurtengoa hirugarren edizioa izango da. Eta, antolatzaileen esanetan, aurreko aldiko mailari eutsiko diote. Hala, Espainiako eta Euskal Herriko flamenko abeslari onenak ekarriko dituzte lehiaketara. Guztira, 18 artista izango dira.

URTARRILETIK OTSAILERA BITARTEAN

Aurreko bi edizioetan moduan, aurreko jaialdiak zapatueta egingo dituzte. Bihar, zapatua, hilaren 22an eta 29an. Horren ostean, jaialdi horietan sailkatutako abeslariak otsailaren 19an egingo dute finala. Aurten, berrikuntza moduan, finalean bost parte-hartzaile bakarrik egongo dira. Aldaketa hori finaleko ikuskizuna laburtze aldera egitea erabaki dute.

Edozelan ere, kantari flamenkoen mailan ez da aldaketarik egongo. Beste behin, maila handiko lagunak lehiatuko dira. Hala nola, lehenengo edizioa irabazle Rocio Ruiz; Miguel Angel De La Pena Badajozko kantari ezaguna; Isabel Rico Nieto malagarrak; eta baita hainbat euskaldun ere bai. Horien artean, Francisco Guerrero gasteiztarra. Horiek guztiak aukera izango dute lehiaketako sari handiak irabazteko.



AITOR LIZARRAIDE

Lehiaketako sari nagusia Arrasateko Portaloia eta gitarra batzen dituen garaikurra da.

Guztira, 18 abeslari lehiatuko dira urtarrilean Al Andalusen egingo diren hiru saioetan

Lehenengo saioa bihar, zapatua, egingo dute Al Andalus elkartearen. 22:00etan izango da, eta honako lagunek esku hartuko dute:

Finalera bost abeslari bakarrik helduko dira, eta saio hori Amaian egingo dute

Gabino Carmona (Abadiño), Juan Luis Vitor (Bilbo), Rafael Guerrero (Nafarroa), Antonio Parra (Nafarroa), Rocio Ruiz (Getafe) eta

Gero eta ospe handiagoa dauka lehiaketa horrek, eta lagun asko batzen dira saioetan

Miguel De La Penak (Badajoz), hain zuzen ere.

Epaimahaia bost lagunek osatzen dute. Horien artean, Al Andalus

elkarteko ordezkari bat eta Santanderko eta Gasteizko elkarte andaluziarretako ordezkari bina. Zer esanik ez guztiak flamenkoan adituak direla.

Al Andalus elkarteko lagunak oso pozik daude, lehiaketa horrek gero eta ospe handiagoa hartu duelako. Horrez gain, ziur daude finalean Amaia Udala Antzokia bete egingo dutela. Joan den urtean 900 lagunek jo zuten finala ikustera, eta Euskal Herriko lagunak gain, Espainiatik ere hurbildu ziren hainbat lagun.



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak

- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

BOTEPRONTUEN

Zhun Guang Jiang

DRAGON ORIENTAL JATETXEA

XABIER URTZELAI

Oin dala urte batzuk gutxi esango euen Mondraguen bi restaurante txino egongo ziela; zapatuetan herriko bixek egoten die beteta. Zhun Guan Jiang-ek San Andresekuen egitten dau lan. Urte eta erdi egin dau restaurantiek eta gustora dabil bertan. Familixako negoziue da.

Noiztik Mondraguen?

2002xen etorri gitzen Mondraguera, baiñe urte asko egin dot Españako hainbat lekutan. Valentzian, Castellonen, Kordoban, Castro Urdialesen... 1990ien urten neuen Txinatik.

Eta, zelan okurridu jatzuen Mondraguen restaurantie ipinttie?

Guk pentsetan dogu restaurante bat jarri leikela hamar mila biztanleko, eta Mondraguen 24.000 biztanle inguru dauzenez... Gaiñera, inguruko herrixetatik be asko etorten die hona.

Zelan lelengo hillebete honeittan?

Ondo, gustora.

Jentiek ze eskaketan dau gehixen?

Rollituek eta holakuek eskaketan dau jentiek gehixen, baiñe hasi die arroza frijidute, igel hankak, sepia plantxan, oillaskue Thailandes erara preparaute eta holakuek eskaketan.

Esaten daue hamengo restaurante-txinuek eta Txinakuek diferentiek diela.

Bai, han ez dauelako jana horren agudo ataraten. Jana be bestelakue da, askoz be adorno gehixaukin preparentan daue, eta guk ezin dogu holakorik egin. Egixe da, baiñe, Txina oso haundixe dala, eta han be leku batetik bestera gauzak asko aldatketan diela. Kataluñan eta Galizian ez badaue bardin jaten, Txina danien...

Jenerue hamen erosten dozue ala kanpotik ekarrittakue da?

Restauranteko jenerue hamen erosten dogu. Madriletik ekarten dogun gauza bakarria saltsak eta holakuek die.



X.U.

“Kalkulaute daukogu restaurante bat ipiñi leikela hamar mille biztanleko”

Ze da zuon laneko gauza onena?

Jentie ezaguketan dogule.

Eta txarrena?

Denpora luzie eskaketan dauela, eta ez dustela neuk gure dotena egitteko denporarik ixten.

Ze gure dozu ba egin?

Españolez berba egitten ondo ikesi.

Hamengo restaurantietara jueten zara?

Bai, ahal dotenien bai. Normalien eguneko menuek jaten dot.

Lana alde batera itxitte: Txinako ze partekue zara?

Txinako hegoaldekue naz, Zhe Jiang probintziakue.

Eta, handik hona alde haun-

“Txinako restaurantietan jana diferente preparentan daue, gehixau adornetan daue”

dixe dau?

Bai, alde haundixe dau: ohitturak, kulturie...

Ez da bape errexatxetik urrin egotie.

Ez, baiñe oso gustora gauz hamen, beste gauza batzuen artien klimie antzerakue dalako. Baiñe alabie han dauket, amamakin batera, eta hori gogorra da. Ia ba datoren urterako etorten dan.

Ze falta jako Mondraguei?

Ziniek!!! Eta ez dauket Gasteizera jueteko kotxerik!!!

Kapritxo bat?

Kotxie erosi gure dot, baiñe hamen karneta ataratie oso gatxa da. Horretarako hizkuntzie ondo ezagutu biher.

NIREBIDAIAHURA/ Iraitz Agirre

Eskandinaviara / 2004ko abuztuan

O rain dela hilabete izan genuen Iraitzek Eskandinaviara egindako bidaiaren berri, eta urteko azken aleak bereziak egin genituen orduetik hona ez dugu gehiago jakin, irakurtzen ari zartenteak deskantsua hartu du-eta. Bidaia, baina, bere horretan utzi genuen, eta merezi duen amaiera eman beharko diogu. Gainbegiratua eginez, Iraitz familiakoe-kin batera joan zen Eskandinavia ezagutzera, eta Norvegiako mendebaleko kostaldean utzi genituen, auto-karabana-ekin: “Mendebal osoa da ederra, baina Geirangerfjord gustatu zitzaidan bereziki. Gainera, Norvegia handia bada ere, oso jende gutxi bizi da han, eta ez da turista askorik egoten; eskertzekoa da hori, hango naturaz gozatzeko traba gutxiago izaten delako.



“Norwegian ez dago turismo handirik, eta eskertzekoa da”

Norwegian jaiak nola ospatzen dituzten bertatik bertara ikusi ahal izan zen aramioar batek eta hango lagunek gonbidatuta joan ginen jaira. Hasiera batean ematen du norvegiarrak hotzak direla, baina ezagutzen dituzunean jende oso jatorra da. Noski, horrelako jaietan alkoholak ondo betetzen du bere eginbeharrekoa: errazagoa izaten da jendear-kin berbetan hastea. Hori bai, alkohola oso garestia da han, eta bakoitzak eramaten du bere ardo botila”.

“Garestia denez, jaietan guztien artean jartzen dute alkohola”

Iraitz eta familia Norvegiatik Suediara joan ziren: “Pare bat egun egin genituen Stockholm-en. Suediako hiriburua benetan da ederra, erdialdea batez ere. Autoa hartu eta Kopenhageraino joan ginen, lehengusina han zegoen-eta ikasten. Kopenhage ere bisitatzeko moduko lekua da. Lehengusinarekin eta familia osoarekin elkartu ginen han, eta Danimarkan egin genituen gure bidaiako azken egunak”.

XABIER URTZELAI



Danimarkan amaitu zuten Alaitzek eta familiakoe bidaiak, Kopenhagen.

Herrialde berriak bisitatu dituzu?

Zure bidaiak kontatzeko prest zaude?
Anima zaitetz, zure abenturak gustura irakurriko ditugu eta!

Deitu 943 71 25 11 telefonora.



ZAHARREN ETXETIK

Aireztatze sistema aldatzeko lanak bukatu ostean, zabalik dago Uribarriko elkarte

IKER BARANDIARAN

Dagoeneko bukatu dituzte Uribarriko erretiratuen elkarte- an egindako lanak. Urrian hasi zituzten lanok eta abenduaren bukaeran bukatu zituzten. Atezaina aldatu egin zuten, eta hark taberna hornitu ostean, urtarrilaren 4an egin zuten inaugurazio ekitaldia.

Pozik daude Uribarriko erretiratuak. Izan ere, ia hiru hilabete- an itxita izan dute auzoko elkar- teko taberna, eta dagoeneko zaba- lik dago berriro. Udalak erabaki- zuen kea ateratzeko sistema alda- tu beharra zegoela. Tabernan iza- ten dituzten keak kanpora atera- tzeko arazoak zituzten, eta hori ekiditeko lanak egin dituzte.

EKITALDIEK AURRERA EGIN ZUTEN

Lanak ez zituzten elkarte guztian egin behar. Taberna-guneak zuen premia handien, eta han egin dituzte aldaketak. Elkarteak albo- an dituen bulegoak ez dituzte uki- tu. Gune horretan debekatuta dago erretzea eta hortaz ez dute



Egunero-egunero auzoko erretiratu askok erabiltzen dute Uribarriko elkarte-ko taberna-gunea.

inolako arazorik izan. Arrazoi horregatik, tabernan aireztatze sistema aldatzeko lanak egin dituzten bitartean, elkartearen

bulegoan hainbat ekitaldi egin dituzte: ohiko ikastaroak eta beste. Hala ere, sarrera tabernan dutenez, bazkideek eta erabil-

tzaileek bulegoetara beheko solai- rutik igo behar izan dute.

Lan horiek 30.000 euro inguru- ruko aurrekontua izan dute, eta

Aireztatze sistema aldatzeko lanak bukatzearekin bat, atezain berria kontratatu dute

Udalak uste baino gehiago luza- tu dira, hainbat zailtasun izan dituztelako.

Taberna-gunean egindako hobekuntzez gain, sukaldeko erauzgailua aldatu egin dute.

Abenduaren amaieran buka- tu zituzten lanok, eta urtarrila- ren 4an egindako inaugurazio ekitaldian atezain berriak hartu zuen elkartearen ardura. Hemen- dik aurrera Antonio Mena izan- go da arduraduna. Auzoko hain- bat lagunek esku hartu zuten eki- taldian, eta elkarte-ko batzarra oso pozik dago hobekuntza lanen emaitzarekin.

Badirudi, azkenean, Uriba- rriko elkarte normaltasunera itzuli dela.



Abaroa elkarte-ko txapelak

Hauek dira Abaroa-ko mahai- joko txapelketako irabazleak: musean, Anastasio Lopez de Ipiña eta Gaspar Perez. Txapel- dunordeak, Vitori Alonso eta Maria Belen Aranburuzaba- la. Tutean, Ventura Martin eta Jose Encalado. Txapeldu- nordeak, Felipe Conejo eta Francisco Tristan. Briskan, Eufrosia Villar eta Agustina Garcia. Txapeldunordeak, Maritxu Velez de Mendizabal eta Lucia Oiartzabal. Billa- rrean, Jesus Uranga. Eta txapel- dunordea, Jose Zalama.

/ARGAZKIA: JOSE RIVIERE

LABUR

80 urtetik gorakoei omenaldia, eta oroimen tailerra

Uribarriko elkarteak aditza- ra eman du hilaren 27an 80 urtetik gorako bazkideei ome- naldia egingo dietela. Bazka- ria izango dute 14:00etan. Inte- resatuek elkarte-ko bulego- jo beharko dute izena emate- ko edo 943 77 18 29 telefono zen- bakira deitu beharko dute 18:00ak eta 19:00ak bitartean.

Bestalde, hilaren 25ean oroimen tailerra hasiko dute Martitzenetan egingo dute 17:00etan, eta Mercedes A- ra izango da irakaslea. Ema- izena lehenbailehen.

Txitxinpe

Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak

Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

EGUZZKIGRAF

inprimategia

ARETXABAETA

Industrialdea I-0-4
Telefonoa: 791844
Faxa: 792941

HIES BERRI


Tel.: 943 79 26 99

UGARTE

Industria hornidurak

San Andres auzoa 2. 5-6 Pab.
Tel.: 943-71 21 41
Faxa: 943 - 71 21 40

EZETZASMATU



UBANE MADERA

Zein izen ipini zioten hasieran Fagor enpresari?
Arrastoa: letra bat aldatu behar izan zioten.

Super BM

Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSEK asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**
ARRASATE PRESSERA!

Cojonudos esparragoak
8-12 ale. 325 gr

1€ 166 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

NURIA ARROCHArendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Nuria!
Galderen erantzun zuzena:
2000koa.

ARRASATEKOHISTORIA

Arrasateko baserri auzoetako bideak (VII)

'ARRASATEKO BASERRI...' / G. ARZELUS

Arrasateko auzoetako bideen gaineko izendapenarekin segituz, Zaldibar eta Uribarri uzoetara eramango gaitu Gotzon Arzelusek:

"Azuela bide (Zaldibar, 1475, 1477, 1778 eta 1899): Antzagarigartu eta Aspobaltz baserrien azpitik gorantz igoaz, bide asko batzen dituen eta gaintxo batean dagoen bidekurutze bateraino heltzen da. Beraz, *Erregibidearen* bideune bat da. Gaintxo horri Azuela deritzo.

Esan bezala, bidekurutze bat dago eta bide ugari batzen dira bertan. Esate baterako, Kaltzadagain mendietatik Azuelaraino doana, jadanik 1778an aipatzen dena. Azuelatik pasatzen den biderik garrantzitsuena *Erregibidea* da, eta lehen aipatu dugun Kaltzadagain mendiei *Erregibideak* berak eman zien izena, antzina bide hura kaltzada baitzen. Beste bide batzuk Otxia eta Bedoñaraino, edo desagertuta dagoen Zaldibarreko baserrira doaz/zihozan. Azuelako bidegurutzeari *Siete Caminos* ere deitu izan diote.

Bastergain bide (Uribarri, 1779 eta 1899): Murugain mendia magalean, Uribarri alde-
ra dauden baserriak Bastergain-



Bedoña eta Arrasate lotzen zituzten bideak dira Bedoña Bide izenekoak.

azpikoa eta Bastergain-gainekoa dira. Hiru izan dira aspaldidanik baserri hauetaraino eraman izan dituzten biderik nagusienak.

Bata, Txilibitu basotik pasatuz eta Naparrena baserrietik eskumaldera hartuta zihozan, *Murubidetik* eskumaldera, ale-

*Gerran akabatutako
bi gazteren gorpuk
Kurtzetxikitik
gertuko leizera
bota zituzten*

gia. Naparrenatik gertu, UCE-Meko langileek moldeak egiteko harea berezi bat ateratzen zuten. Bestea, Ikutixo arrora irteten zen, hau da, Ikutixo baserriaren bizkarrean. Hirugarrena, berriz, Telleixe eta Olia baserrien gainetik abiatzen zen.

Gaur egun, asfaltaturik dagoen beste bide zahar batek, Mendiguren eta Erenuzketa baserrietatik pasatu ondoren Gesalibarreraino darama.

Bedoña Bide (Bedoña, 1476, 1599, 1603, 1605, 1694 eta 1899): Bedoña eta Arrasate lotzen zituzten bideak dira. Nahiz eta Bedoñara hainbat puntutatik heldu zitekeen, San Andres esparrutik abiatzen zirenak dira hauek: San Josepe ermita, San Andres ermita eta Iramendi ingurutik hasita Estrada baserrira eta Mukietera heltzen zirenak, alegia.

Esate baterako, San Josepetik irteten zuena, zuzenean Estradara heltzen zen. Oraindik ere ondo asko ikus daiteke bidea. Aipatzekoa da Erkotxaundi inguruan bideak gorantz, hau da, Kurtze Txikirantz jotzen zuela sima edo leize batera eramaten zuelarik (gaur egun ere horrela da). Leize horretara baserrietan hiltzen ziren abereak botatzen zituzten. Hala ere, Gerra Zibilean akatu zituzten bi gazteren gorpuk ere hara bota zituzten, hilobiratu gabe. Antza denez, Estrada baserri inguruan hil zituzten; gero astoz garraiatu eta zulora bota zituzten. Sima hori gaur egungo Kurtze Txikiko pinadiaren ondandago".

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2005eko urtarrilaren 14a / 135. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Aita Menniren eguneko zentrora joateko garraioarekin arazoekin segitzen dute

UBANE MADERA

2003ko urriaz geroztik, Aramaiotik Aita Menniren eguneko zentrora doazenek euren kabuz moldatu behar dute. Harrezkero, behin eta berriro eskatu diote Diputazioari zerbitzu hori berriro ipintzeko. Oraindik ez dute lortu.

Aita Menniren eguneko zentrorra joaten direnak pertsona nagusiak dira, ezintasun handidunak (gurpildun aukietan dabiltzanak...). Hala, bada, Aramaiokoak Aita Menniren eguneko zentrorra joaten hasi zirenean, Debagoieneko Mankomunitatea arduratzen zen pertsona horien garraioaz; bereziki egokitutako garraioa erabiltzen zuten horretarako. Baina, 2003ko urrian, kendu egin zieten zerbitzu hori Aramaioko erabiltzaileei. Gauzak horrela, Aramaioko Udalak ipini zien garraio zerbitzua. Baina Udalarendako garestiegia zen eta ezin izan zien gastuei aurre egin. Eta harrezkero familiak arduratzen dira senitartekoak Aita Mennira eramateaz. Kexu dira horregatik. Batetik, auto partikularretan egin behar dutelako bidaia,



Garraioaz gain, Aita Mennirako bi plaza gehitzeko ere eskatu dio Udalak Arabako Diputazioari.

eta auto partikularrak ez daudelako behar bezala egokituta. Bestetik, egunero-egunero senitartekoren batek arduratu behar duelako haiek Aita Mennira eramateaz. Kaltetutako familietako

bateko kideak lana utzi behar izan zuen hori egin ahal izateko.

Hori dela eta, bai familiak bai eta Udala bera ere Arabako Foru Aldundiarekin harremanetan ibili ziren, egoera konpontzeko. Bai-

na ez zuten ezer lortu. Orduan, Udalak Arabako Batzar Orokorretara jotzea erabaki zuen. Kasu horretan, EAJren, EAren eta PSE-EEren aldeko botoei esker, Aita Mennirako garraioa ezartzeko

Arau Forala onartu zuten Batzar Orokorretan. Horren arabera, Aita Mennirako garraio zerbitzua Gurutze Gorriaren eskuetan utziko zuten. 2004ko azaroan onartu zuten hori. Eta Arau Forala urte bukaera baino lehen aplikatu behar zuten, legeak hala agintzen duelako.

ARAU FORALARI KASURIK EZ

Baina ez dute agindutakoa bete. Mertxe Mondragon alkateak salatu du Diputazioak ez duela Arau Forala bete, nahiz eta legeak hala agindu. Hori ikusita, Udalak berriro ere Batzar Orokorretara jo du eta han adierazi diote Diputazioarekin arazoa konpontzeko beste ahalegin bat egingo dutela, baina otsailera arte ezin izango dutela ezer egin. Bien bitartean, Aramaioko familiek lehengo egoera berean segitu beharko dute.

PLAZA GEHIAGO

Bestalde, garraioaren eskaerarekin batera, Aita Mennirako eta Iturbide egoitzarako lau plaza gehiago eskatu zituen Udalak. Iturbiderako bi plaza gehitzea onartu zion Diputazioak; ez, ordea, Aita Mennirakoak. Hori ere lortu gura dute Udaletik.

Bainuetxeetara joateko eskaerretarako epea zabalik

U.M.

Gizarte Segurantzako pentsiodunak has daitezke bainuetxeetara joateko eskaerak egiten. Lehenengo txandarako epea urtarrilaren 31n bukatzen da.

IMSERSOK dagoeneko abiarazi du bainuetxeetara joateko aurtengo programa. Gizarte Segurantzako pentsiodunek parte har dezakete programa horretan. Hain zuzen ere, erretiroa eta ezintasuna dela-eta Gizarte

Segurantzako pentsiodun direnek inolako baldintza barik parte hartzeko aukera dute; eta alarguntzarengatik edo bestelako arrazoi batengatik pentsiodun direnek, berriz, 60 urte-tik gora izan beharko dute bainuetxeen programan parte hartu ahal izateko.

Hala, bada, otsailetik abuztura bitartean joan nahi dutenek urtarrilaren 31ra arte dute eskaerak egiteko.

Irailtik abendura bitartean joan nahi dutenek, berriz,

maiatzaren 16ra arte dute eskaerak egiteko.

ERAMAN BEHARREKOAK

Adierazi digutenez, eskaera guztiak Aramaioko udaletxean egin behar dira, gizarte-laguntzaileen bulegoan. Pentsiodunek agiri jakin batzuk eraman behar dituzte horretarako: Nortasun Agiriaren fotokopia; hilean jasotzen duten pentsioaren zenbateko zehatza; Gizarte Asegurantzako afiliatu zenbakia eta medikuaren txostena.



Makina bat bainuetxe izango dute aukeran pentsiodunek.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zuiaiko Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
	07:50	08:05
08:15	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

OHARRA: izartxoan duten orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutakoak dira, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

OHARRAK

JON AGIRREAREN ALDE

Gaur, barikua, Jon Agirre preso aramaioarraren aldeko ekimena egingo dute kiroldegian. 20:00etan hasiko da. Helburua da haren osasun egoera latza salatzea eta haren askatasuna eskatzea. Horren harira, udalbatzarrak Jon Agirrearen aldeko mozio bat onartu zuen. Haren bitartez, presoaren osasun egoerarengatik kezkatuta, Jaurlaritzari eskatu zion kezka bera azaltzeko eta Espetxeetako Zaintzari dagozkion neurriak hartzeko.

UDALAREN ABISUA

Alkateak jakinarazi digu geroago eta gehiago herritarrek autoa gaizki aparkatzeko ohitura hartzen dabilzala. Hala, egoera hori konpondu ezean, neurriak hartuko dituela jakinarazi gura die herritarrei.

BARIKUKO ZINEMA

Oraingoan, Kim-Ki duk zuzendari hego-korearraren *Primavera, verano, otoño, invierno y primavera* filma emango dute.

KULTURA

Euskara biziberritzeko plana onartu du Udalak 2005-2006rako

U.M.

Datozen bi urteotarako, Aramaioko Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia onartu du Udalak. Oro har, euskararen erabilpena bultzatzeko aurreikusitako plan estrategikoa da. Arlo ugari hartu dituzte kontuan plan horretan: irakaskuntza, familia eta transmisioa...

Udalak abiaraziko duen euskara biziberritzeko planaren helburu orokorra zera da: aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabaki eta bultzatu, euskaraz bizi nahi duten herritarrek hala egin ahal dezaten. Oro har, Udalak egin nahi duena da Aramaion euskararen aldeko urrats gehiago eman, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean euskara guztiz berreskuratzea lortzeko.

HUTSUNEEI AURRE EGIN

Arlo ugari kontuan hartuko dituzte planean: irakaskuntza, euskalduntzea eta alfabetatzea; familia eta transmisioa; informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak; enpresak; aisialdia; kirola; erlijioa; kultura... Azken batean, herriaren eguneroko bizitzan eragina duten arloak aztertuko dituzte. Hala, azterketa egin eta gero, arlo bakoitzean dauden hutsunak identifikatu eta horiei



Herritarrek partaidetza zuzena izango dute euskara biziberritzeko Udalak onartu duen planean.

aurre egiteko proposamenak aurkeztuko dituzte. Horrekin batera, herritarren ekarpenak ere kontuan hartuko dituzte. Izan ere, asmoa da herritarrek Ahol-

ku batzordea eratzea. Hala, ekarpen guztiak bat egin eta proposatutako plan bakarrean bateratuko dute. Horri onspena eman beharko dio Jaurlaritzako

Hizkuntza Politikak. Euskara Saileko buru Rosa Mondragonek jakinarazi digunez, dagoeneko hasita dira 2005erako kudeaketa plana egiten.

Gizarte zerbitzuekin lotutako dirulaguntzak

U.M.

Aramaioko Udaletik jakinarazi digutenez, gizarte zerbitzuekin lotutako zenbait dirulaguntza eskatzeko epea zabalik da. Hain zuzen ere, irabazi asmo bariko elkartei eta Udalari zuzendutako deialdia da. Urtarrilaren 31ra eta otsailaren 15era arteko epeak izango dituzte laguntzok eskatzeko.

Bi dirulaguntza mota eska daitezke. Lehenengo kasuan, honako lanak egiteko: gizarte zerbitzuez arduratzen diren zentroen eta zerbitzuen mantentze-lanetarako; elbarritasun fisiko, psikiko edo sensoriala duten pertsonen, emakumeen, etorkineen, pertsona nagusien edo gizartetik kanpo geratzeko arriskuan dauden taldeei laguntzeko eta haiek gizarteratzeko programak lantzeko; Arabako baserri-guneetako komunitatearen garapena bultzatzeko; Araba-

ko baserri-guneetan droga-mendekotasunari aurre egiteko; boluntarioen lana eta gizarte ekimena sustatzeko eta tolerantziaren eta errespetuaren alde herritarren parte-hartzea bultzatzeko.

Dirulaguntza hori eskatzeko epea urtarrilaren 31ra arte izango da zabalik. Lehen esandako moduan, irabazi asmo bariko elkarteek zein Udalak eska dezakete laguntzok.

Bigarren motako dirulaguntzak eskatzeko epea, berriz, apur bat luzexegoa da: otsailaren 15era artekoa. Kasu horretan honako lanak egiteko eska daitezke laguntza: gizarte zerbitzuez arduratzen diren taldeak oinarritzeko ekipamenduak hornitzeko edo haiek dituzten ekipamenduak konpontzeko; lokalen egokitze, mantentze eta hobetze lanetarako eta ekipamendua eta altzariak eskuratzeko. Eskaera guztiak Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen gaitza dira.

Otsailean, Espainiako Txapelketara doa Unda

U.M.

Maider Unda borrokalari oletarra buru-belarri entrenatzen dabil. Izan ere, otsailean Espainiako Txapelketa jokatu du, beste bi borrokalariaren kontra. Oletar gaztearen helburua da txapelketa irabaztea, aurrera begira nazioarteko txapelketetan parte hartu ahal izateko.

Maider Undak ahaztu du Joko Olinpiarretan izandako zorte txarra eta dagoeneko aurtengo denboraldirako buru-belarri dabil lanean. Kontatu digunez, borroka librean derrigorrezkoa da Espainiako Txapelketa irabaztea gero nazioarteko bestelako txapelketetan jokatu nahi bada. Hala, Maider Undaren aurtengo helburu nagusia da Mediterraniar Jokoetan parte hartzea; horrenbestez, lehenengo Espainiako txapela ekarri beharko du

berriro Oleta aldera. Eta orain, hori lotzeko entrenatzen dabil, Gasteizen.

Lehen esandako moduan, otsailean jokatu du Espainiako Txapelketa. Gijonen izango da; baina oraindik data zehaztu barik dago. Maider Undak bi kontrario izango ditu aurrez aurre, madrildar eta kanariar bana. Esan digunez, bi horiek Ameriketako Estatu Batuetan dabilzala orain entrenatzen. Edozelan ere, Maider Unda animoso dago; bestetan baino ilusio handiagoa duela adierazi digu. "Ez dago beldurrik", esan digu guri.

EKAINEAN, ALMERIAN

Esandako moduan, aurtengo Mediterraniar Jokoetan parte hartzea da oletarraren nahia. Ekainean izango da txapelketa hori, Almerian. Edozelan ere, gaineratu digu bien bitartean Europako bestelako txapelketetan parte hartzeko asmoa duela.

ERRETRATUZAHARRA

Kanpanzarren, San Inazio eguna ospatzen

Neguko hotz fin-fin honetatik udako berotasun goxora joango gara oraingo asteko argazki zaharrari esker. 1955ean ateratakoa dela kontatu digute, San Inazio egunean. Izan ere, egun horretan, uztailearen 31n, ospakizun handia egiteko ohitura zuten Kanpanzarren. Inguruko jende asko elkartzen zen han, egun pasa, batez ere Arrasatekoak eta Elorriokoak. Izan ere, jai giro ederra egoten zela kontatu digu gure berriemaileak. Halakoetan ohi denez, bazkaria, eta askotan, afari-merienda hartu eta ia etxeko guztiak joaten ziren jaira, seme-alaba eta guzti. Kontatu digutenez, oraindik ere badute San Inazio eguna ospatzeko ohitura Kanpanzarren, nahiz eta gaur egun ez izan lehen adinako jai handia. Orain, halakoetan askoz ere jende gutxiagok parte hartzen du. Arrasateko eta Elorrioko udalen artean ospatzen dute gaur egun San Inazio eguna.

Hala, bada, honako hauek agertzen dira argazkian, ezkerretik hasita: Jose



Madinabeitia, ondoko gizona Juanito Guridi da. Ezkererantz jarraituz, baina atzeko aldetik Nikolasa Madinabeitia ikus dezakegu. Haren ondoko Juana Sologaistoa da; hark besoetan duen mutikotxo, berriz, Luciano Mercader *Txantxote* da eta haien

ondoko gizonetako Carlos Mercader *Txantxote*. Iharako azken neskatila Begoña Izasmendi da.

Aurrealdera begiratuta, berriz, ezkerretik eskumara honako neska-mutiko hauek agertzen dira: Lucia Guridi, Juan Migel Guridi, Espe

Mercader *Txantxote*, Jabier Usobiaga eta Marga Mercader *Txantxote*.

Argazkia eta informazioa: Marga Mercader *Txantxote*.
Urtea: 1955.

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Autoa kalterik egin barik garbitzeko

Orain dela bederatzi urte egin zuen Udalak Garagartzan autoendako zerbitzu-gunea. Autoak garbitu, olio aldatu eta konponketa txikiak egiteko helburuarekin egokitu zituzten 300 metro koadro. Jendeak edozein tokitan garbitzen zuen autoa, eta egoera horrekin amaitzea zen helburuetako bat, kalte handia egiten zioten-eta ingurumenari.



≈ 1994 Negu partean gutxiago dira autoa eskuz garbitzera animatzen direnak. Tenperatura ederrean egoten da ura!



2004 Udako asteburuetan, baina, bete-beteta egoten Garagartzako autoendako zerbitzu-gunea. Zerbitzu egin gura duenak goizean goiz joan behar du.

ad **Ibabe**

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa z/g.
Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

BASATI
TABERNA

PINTXUAK, BORATAK ETA TRAGUAK

943 711763



PROFESIONAL *liberalak*

AHOLKULARITZA

ASEGI AHOLKULARIAK

Otalora Lizentziatua 4. Arrasate
Tel.: 943 71 25 49 Faxa: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

EMUN KOOP. E.

Uriburu 9, behe. Arrasate
Tel.: 943 71 18 47 Faxa: 943 79 34 26
emun@emun.com

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

Otalora 16, solairuartea, esk. Arrasate
Tel.: 943 79 51 25 Faxa: 943 71 19 85
uribesalgoe@euskalnet.net

ABOKATUAK

LIA ALTUNA BEGOÑA LASAGABASTER

Iturriotz 15, 1 A. Arrasate
Tel.: 943 79 98 86 Faxa: 943 77 01 08
altu-lasa@conet.es

BITART

**Larraitz Ugarte
Maidor Morras**

Nafarroa etorbidea 23
Arrasate
Tel.: 943 71 25 22 / 943 71 25 23
Poltsikokoa: 659 59 71 21


APAREJADOREAK

JUAN MARI OSINAGA

Zerkaosteta 17 behe
Tel.: 943 79 67 78 / Faxa: 943 77 10 09
zutarri@infonegocio.com

Etxeko konponketak

Elektrizitatea

 **Aranzabal** Koop. E.

Instalakuntza elektrikoak
Antena kolektiboak
Zerkaosteta 15
Tel.: 943 79 68 21 / 670 57 53 83

Iturgintza



iturgintza

Gipuzkoa etorbidea 39-behea • Tel.: 943 77 01 85

Leihoak



ARGÍ PLASTIK

PVC, aluminio termiko
eta poliuretanozko
leihoen lantegia.

Erakusketa eta lantegia: Zigarrola 1- Pab.
Tel./ Faxe.: 943 77 11 30 - 943 79 62 18

Margoak

Apain

MARGO ETA APAINKETA
Matiena 3-1

Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

Txorrota

Nafarroa etorbidea 5 atzealdea
Tel.: 943 77 17 13 / 607 26 04 17



ION LEIHOAK

PVC • Aluminioa RPT
Poliuretanoa • Bitarikoak

Ateak • Zoluak

Kanpantorpea 2-behea • ARRASATE
Tel./Faxe.: 943 79 11 35

Eraikuntzak

**Arrasate
eraikuntzak SL**

Meatzerreka auzoa 30
Tel.: 659 67 17 59 / 943 77 12 26

Jovi

10.000 KOLORETAKO MENUA
Ferrerias 36-behea • Tel.: 943 79 12 87



**Izcue
Irurzun**

Igeltserotza orokorra
Etxeen berrikuntzak
Sukaldeak, komunak...

Tel.: 943 77 04 77 / 607 87 91 66



ZUTARRI S.L.
Eraikuntza enpresa

Zerkaosteta 17 behea.
Tel: 943 79 67 78 Faxe: 943 77 10 09

Zure publizitatea hemen jartzeko deitu 943 71 23 91 telefonora